



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko urtarrilaren 13a

2. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2013), Kontuen Ganberak
egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2013), Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko irailaren 7an eginiko bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketari buruzkoa (2011-2013), ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko irailaren 7an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Iruñerriko Mankomunitatearen kudeaketari buruzko fiskalizazio txostena (2011-2013), Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Datu orokorrak eta aplikatzekoa den araudia (4. or.).

II.1 Iruñerriko Mankomunitatea (4. or.).

II.2 Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietatea (6. or.).

II.3 Auditoriak eta ziurtagiriak (6. or.).

II.4. Araudia (6. or.).

III. Fiskalizazioaren helburuak eta norainokoa (8. or.).

IV. Iritzia (9. or.).

IV.1. Mankomunitatea (9. or.).

IV.2. Sociedad Comarca de Pamplona, S.A. (SCPSA) (12. or.).

IV.3. Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna (15. or.).

IV.4. Amaierako ondorioa eta gomendioak (16. or.).

V. Ondorioak (17. or.).

V.1. Plan estrategikoa (17. or.).

V.2. Mankomunitatea (18. or.).

V.3. Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietatea (33. or.).

1. eranskina Mankomunitatearen eta sozietatearen kontu bateratua (49. or.).

2. eranskina Iruñerriko Zerbitzuak, SAren organigrama (51. or.).

I. SARRERA

2013ko abenduaren 30ean, Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak eskatuta, Kontuen Ganberari fiskalizazio-txostena eskatzea Eskualdeko Hiri Garraioaren (EHG) emakidaren oreka ekonomiko eta finantzaria berrezartzeko espedienteari buruz. Gai hori dela eta, Mankomunitatearen Batzar Orokorrek 2013ko ekainean aho batez erabaki zuen emakidadunaren oreka ekonomikoaren haustura baiestea, atzeraldi ekonomikoak kontratua arautzen zuen baldintza-orrian ezarritako bidaiari-konpromisoan izandako eragina zela eta.

2014ko urtarrilaren 27an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Parlamentu-talde Popularrak eskatuta, erabaki zuen Kontuen Ganberari eskatzea Iruñerriko Mankomunitateari buruzko txosten bat egin zezala, 2011ko, 2012ko eta 2013ko ekitaldiei buruzkoa.

Eskari hori honela zehaztu zen:

- Zerbitzu horiek emateko Mankomunitatearen emakida hartu zuten sozietateen auditoria xehea egitea.
- Hartzekoan dituen gerakinen egoera eta haiei buruzko araudia kontuan hartzea, haien xedea nahitaezkoa izatearen ala ez izateari begira.
- Mankomunitatearen ondare- eta higiezin-gaien kudeaketa: orubeetan, lurzoruetan, bulegoetan edo eraikinetan egindako inbertsioak; inbertsio horietarako erabilitako funtsak eta haien jatorria, arreta berezia jarritz Salestarren Komentuari; desinbertsioak, eta errentamenduen bidez lortutako kapital-etekinak.
- Teknikari enplegatuen ordainsarien maila eta blindatze-klausula "bereziak" dauzkaten kontratuak badauden ala ez dauden.

2015eko abenduaren 15ean, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Parlamentu-talde Popularrak premiatuta, Ganbera honi eskatu zion lanari gehitu zieziaion hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua esleitzeko prozesuari buruzko fiskalizazioa.

Kontuen Ganberak, eskari horiek kontuan hartuta, 2015eko ekitaldiko lan-programari gehitu zion Iruñerriko Mankomunitateari eta haren sozietate publikoari buruzko fiskalizazioa.

Fiskalizazioa auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin zuen, Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan. Azterketalana 2014ko azarotik 2015eko apirilera bitarteko hilabeteetan egin zen.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne, bai eta bi eranskin ere. Bigarren atalak Mankomunitatearen eta haren sozietateen osaketa, antolaketa eta zerbitzuak deskribatzen dira, bai eta aplikatzekoa zaion araubidea ere. Hirugarren atalean, lanaren helburuak eta norainokoa aipatzen dira, eta laugarren ataletan, informazioa ematen dugu langileen ordainsariei buruz; bestetik, iritzia ematen dugu langileen kudeaketari, ibilgetuari eta emandako zerbitzuei buruz, kontratazio administratiboan legezketasuna betetzei buruz eta 2013ko ekitaldiko aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioei buruz. Atal horretan, halaber, Mankomunitatearen eta haren sozietatearen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak jaso ditugu. Azkenik, bosgarren atalean, fiskalizazioaren ondorioak zabaltzen ditugu.

Eranskinetan, Mankomunitatearen eta haren sozietate publikoaren 2011, 2012 eta 2013. urte-eko kontabilitateko egoera-orri nagusiak aurkezten ditugu, bai eta Sozietatearen organigrama ere.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Mankomunitateko Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietateko langileei.

II. DATU OROKORRAK ETA APLIKATZEKO DEN ARAUDIA

II.1 IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Iruñerriko Mankomunitateko (aurrerantzean, Mankomunitatea) 1982an eraturako toki entitate bat da, gaur egun 50 udalerrik osatua. Honako zerbitzu hauek ematen ditu udalerrri horietan:

- Uraren ziklo integrala: edateko uraren hornidura, estolderia eta ur zikinen saneamendua eta araztea.
- Hiri hondakinak bildu, tratatu eta aprobetxatzea.
- Bidaiarien hiri-garraioa.
- Taxi zerbitzua
- Iruñerriko ibai-parkearen kudeaketa.

Honako hau da zerbitzu horiek emateko modua, zehaztuta zenbat udalerritan ematen den:

Zerbitzua	Udalerrri kopurua	Kudeaketa modua
Uraren ziklo integrala	42	Zuzeneko kudeaketa
Hiri-hondakinak	48	Zuzeneko kudeaketa
Hiri-garraioa	18	Zeharkako kudeaketa
Taxiak	19	Partikularrak
Ibai parkea	8	Zuzeneko kudeaketa

Mankomunitateak zuzenean kudeatzen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak eta hiri-hondakinen zerbitzuak, Iruñerriko Zerbitzuak, SA (SCPSA) merkataritza-sozietatearen bitartez. Halaber, sozietate horrek esleituta dauka Ibai Parkearen kudeaketari buruzko jarduketa administratiboak egitea.

Hiri-garraioaren kudeaketa zeharka egiten du Mankomunitateak, emakida bidez.

Taxi zerbitzua titular pribatuek ematen dute, Mankomunitateak horretarako emandako lizenziaren gaikuntzaren bidez.


Aipaturako eskumenez gainera, Mankomunitateak ondoko arloetako udal eskumenak bete ahal izanen ditu, haien titulartasuna lortuz gero:

- Hirigintzaren antolamendua, kudeaketa, exekuzioa eta diziplina; etxebizitzak sustatu eta kudeatzea; parkeak eta lorategiak, hiri bideetako zorua jartzea eta herri bideak zaintzea.

- Ondare historiko eta artistikoa.
- Ingurumenaren zainketa.
- Hornidurak, hiltegiak, feriak, azokak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa.
- Hilerrriak eta hileta-zerbitzuak.
- Bideak garbitzea.
- Kultur eta kirol jarduerak edo instalazioak; aisia; turismoa.

Mankomunitatea osatzen duten 50 udalerriek, 2013ko urtarrilaren 1ean, 360.315 biztanleko populazioa dute guztira, eta honakoak dira: Adios, Antsoain, Anue, Añorbe, Aranguren, Atetz, Barañain, Basaburua, Belaskoain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidaurreta, Biurrun, Burlata, Ziritza, Zizur, Etxarri, Eguesibarra, Eneritz, Esteribar, Etxauri, Ezkabarte, Galar, Girgilao, Uharte, Ibargoiti, Imotz, Itza, Xulapain, Lantz, Legarda, Elo, Muru Artederreta, Muruzabal, Noain (Elortzi-bar), Odieta, Olaiibar, Oikotz, Oltza, Orkoien, Iruña, Tebas, Tirapu, Ukar, Ultzama, Uterga, Atarrabia, Zabaltza eta Zizur Nagusia.

Honako hau da udalerrri horien kokapen geografikoa Nafarroako mapan:



Mankomunitatearen gobernua eta administrazioa honako organo hauei dagozkie:

- Batzar Orokorra, mankomunitatutako udal guztiak ordezkatzeko dituen, 54 kidek osatua (27 Iruñeko Udalekoak eta gainerako 27ak eskualdeko gainerako udalekoak).

- Lehendakaria.
- Batzar Iraunkorra, 16 kidek osatua, Batzarrean dagoen ordezkagarritasun politikoaren portzioan.

II.2 IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, SA SOZIETATEA

Sozietatea 1983ko urtarrilaren 4an sortu zen, 1.202.000 euroko kapitalarekin. Kapital hori guztia Mankomunitateak jarri zuen. Zerbitzu publikoak zuzenean kudeatzeko modu gisa sortu zen.

Sozietateak uraren ziklo integralaren zerbitzua eta hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzuak ematen ditu; halaber, Iruñerriko Ibai Parkearen kudeaketarekin lotutako plangintza- eta kontrol-zerbitzuez eta izaera administratiboko jarduez arduratzen da.

1998ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin, Mankomunitateak Sozietateari atxiki zizkion, gutxienez ere 25 urteko eperako, kudeatu behar dituen zerbitzuarekin lotutako ondare guztia. 1998ko urtarrilaren 1etik aurrera, Sozietateari dagokio esleitutako zerbitzu guztiak emate aldera egin beharreko inbertsioak egitea. Mankomunitatea da inbertsioen finantzaketarako diru-laguntzen entitate titularra, eta Sozietateari eskualdatzen dizkio diru-laguntza horiek.

Sozietatearen gobernu- eta administrazio-organoak dira Batzorde Nagusia, Mankomunitateko Batzar Orokorreko kideek osatua, eta Administrazio Kontseilua, 16 kidek osatua.

II.3 AUDITORIAK ETA ZIURTAGIRIAK

Mankomunitatea eta haren sozietateak honako auditoriak aurkezten dituzte:

- Kontu orokorrari buruzko urteroko auditoria finantzarioa. Honakoak jasotzen ditu: Mankomunitatearen urteko kontuen, sozietatearen urteko kontuen eta eta bi entitateen kontu bateratuen auditoria.
- Bai Mankomunitateak, bai Sozietateak Datu pertsonalak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren betetzeari buruzko auditoria. Azken auditoria 2014. urteari buruzkoa da.
- Laneko arriskuei aurrea hartzeko sistemari buruzko auditoria. Azken auditoria 2015eko otsailean egin zen.
- Kalitatearen kontrolerako sistema. Laborategien kalitate-sistema ziurtatze sistema bat badauka 2000tik, ISO 17025 arauaren arabera. Espainiako Ziurtapen Enpresaren azkeneko berrebaluazioa 2013an egin zen.
- AENOR-ek 2015ean "CO2 emisioei" buruz egindako auditoria, UNE-EN ISO 14064-1:2012 arauaren arabera.
- Auditoria horiez gainera, Mankomunitateak eta Sozietateak bestelako entitate batzuen – kontrol baimenduko erakundeak– ikuskapenak izaten dituzte, ingurumen-alderdiak direla eta (atmosfera-rako emisioak, lixibatuak...), ekoizpen-zentroetako eta bulegoetako instalazio eta ekipamenduen segurtasun industriala, edateko ura tratatzeko estazioak, hondakin-uren tratamendurako estazioak eta sareen ustiaketarako eta mantentzerako tailerra.

II.4. ARAUDIA

Mankomunitateari 2013an aplikatzekoa zaion araudia honako lege- eta erregelamenduxedapenek osatzen dute, besteak beste:

Estatutuak.

Uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.

Martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.

Ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legea, Kontratu Publikoei buruzkoa.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, Diru-laguntzei buruzkoa.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Oki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzazko Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egiturari eta kontabilitate instrukzio orokorrari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuak, hurrenez hurren.

Ekainaren 1eko 8/1998 Foru Legea, Iruñerriko bidaiari-garraio erregularra arautzen duena.

Uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea, Taxiari buruzkoa.

Zerbitzuen kudeaketa arautzen duten ordenantzak.

Tasa eta prezioak arautzen dituzten ordenantzak.

Sozietate publikoak, toki-araubidearen araudi orokorrean tokiko sozietate publikoentzat ezarritakoaz gainera, arau izanen ditu merkataritza-araudia eta honako berariazko araudi berezia:

Estatutuak.

Mankomunitatearen eta Sozietatearen arteko Harremani buruzko Erregelamendua, Mankomunitateko Batzarrak 1997ko urriaren 23an onetsia.

III. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Iruñerriko Mankomunitatearen fiskalizazioa egin genuen.

Fiskalizazioaren helburua zen gure iritzia ematea ondokoen inguruan:

- Mankomunitateko eta Sozietateko langileen kudeaketa, bai eta haien ordainsariei buruzko informazioa.
- Mankomunitatearen eta sozietatearen ibilgetuaren kudeaketa; besteak beste, 2010eko ekitaldian Salestarren higiezinaren erosketa.
- Eskualdeko Hiri Garraioaren Zerbitzua dela-eta Mankomunitateak egindako kudeaketari buruzko azterketa.
- Sozietateak emandako zerbitzuetarako tasa eta prezioak ezartzea.
- Kontratuei buruzko legezketasunaren betetzea Mankomunitateak eta Sozietateak 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan esleitutako obra-, hornidura- eta laguntza-kontratuetan.
- Sortutako gerakinen aplikazioa.

Lanaren norainokoak 2011tik 2013ra bitarteko aldia hartu zuen, bai eta 2010eko ekitaldia ere, Salestarren higiezina erosteko eragiketari dagokionez.

Lana egin zen Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz.

Lanaren norainokoan ez zen sartu Mankomunitatearen kontu orokorraren –mankomunitatearen beraren kontuak, sozietatearen kontuen eta eranskinek osatua– fiskalizazio finantzarioa, zeren eta urtero auditoria finantzarioa aurkezten baitute, eta fiskalizazio horrek aldeko iritzia agertu baitu 2012. eta 2013. urteetan.

2011ko ekitaldian, iritzia aldekoa da, salbu eta Sozietateak kapitaleko diru-sarrerak zuzenean erreserben aurka erregistratzearen eraginengatik; izan ere, hori zuzentzeak emaitza handiagoa, 817.000 euro gehiagokoa, ekarriko zukeen aurreko ekitaldietan, aipatutako kapitaleko diru-sarrerak galeren eta irabazien kontura aldatzeagatik.

2013ko ekitaldian, auditoriaren iritzian eraginik ez badu ere, auditoreek arreta deitzen dute Mankomunitateak Nafarroako Administrazio Auzitegiaren epai baten aurka aurkeztutako errekurtsioa dela eta; epaia garraio publikoaren emakidaren 2007ko eta 2009ko ekitaldietako likidazioei buruzkoa da.

Ez dugu fiskalizatu, ezta ere, zaborrak bildu eta garraiatzeko zerbitzuaren esleipen-prozesua, zeren eta *sub iudice* baitago, Nafarroako Auzitegi Gorenak hari buruzko erabakia hartu zain. Kontratu horri buruz, honako hau adierazi behar dugu:

2014ko maiatzaren 14an, Kontratazio Atarian eta Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Iruñerriko Mankomunitatearen esparruan etxe-hondakinak eta antzekoak bildu eta garraiatzeko eta bilketa pneumatikoaren sistema kudeatzeko kontratuaren lizitazio-iragarkia. Kontratuaren balioa, BEZa kenduta, 159 milioi eurokoa zela jo zen, gehienez ere 10 urterako. Iruñerriko Zerbitzuak, SAren Administrazio Kontseiluak 2014ko urriaren 15ean esleitu zuen kontratua.

Esleipen-prozeduran parte hartutako lizitatzailerik batek, esleipendun suertatu ez zenak, erreklamazio bat aurkeztu zuen Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian, Iruñerriko Zerbitzuak, SA sozietateak egindako kontratu-esleipenaren aurkakoa.

2015eko otsailaren 18an, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak hein batean onetsi zuen erreklamazioa, eta deklaratu zuen baldintzen orria eta kontratazio-prozedura osoa zuzenbidez guztiz deusezak zirela.

2015eko maiatzaren 5ean, izapidetzeko onartu zen Iruñerriko Zerbitzuak, SAK aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren 2015eko otsailaren 18ko erabakiaren aurkakoa. 2015eko ekainaren 26an, demanda aurkezteko epea amaitu zen.

Esleipendun suertatu zen enpresak ere errekurtsoa aurkeztu zuen Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren erabakiaren aurka.

Kontuen Ganberak Iruñerriko Mankomunitateari buruz egin dituen txostenetatik, honako hauek nabarmendu behar ditugu:

- 1994ko txostena. Auditoriaren helburua izan zen deskribatzea, aztertzea eta ebaluatzea plan estrategiko eta kudeaketa-plana, langileen ordainsari-maila eta emandako zerbitzuak.

- 2005eko txostena, non eskualdeko hiri garraioa fiskalizatu baitzen, honako gai hauei buruzko iritzia emate aldera: garraio zerbitzuaren kontratazioaren legezkotasuna; enpresaren bide-agarritasun finantzarioa; emakidaren erreskaterako kasuei buruzko azterketa; erreskate horren kostuaren ebaluazioa, eta hirugarren enpresa batek enpresa emakidadunaren partaidetzak erosteari buruzko azterketa egitea.

IV. IRITZIA

Honakoa da egindako fiskalizazioaren inguruko iritzia, lanaren norainokoa kontuan hartuta:

IV.1. MANKOMUNITATEA

Langileak

Mankomunitatearen 2013. urteko langile gastuek 523.275 euro egin zuten, eta gastu guztien ehuneko 3 egiten dute.

Mankomunitatearen 2013ko plantilla organikoak honako funtzionario-lanpostuak jasotzen ditu: A mailako sei lanpostu, ehuneko 55eko eskusibotasun-osagarriarekin eta ehuneko 13,72 eta ehuneko 75 bitarteko lanpostu-osagarriarekin; gainera, zuzendaritzako osagarria dago idazkari-tza nagusiko eta kontu-hartzaile lanpostuen kasuan. Langile funtzionarioen lansariak, gastu sozialak sartu gabe, 328.980 eurokoak izan ziren 2013an.

Mankomunitateko lehendakariak arduraldi eskusiboko araubidean dihardu, eta 2013an 56.010 euro gordin jaso zituen.

Egiaztatu dugu, mankomunitateko funtzionarioen lansariak bat datozela atxikita dauden lanpostuarekin eta plantilla organikoan onetsi ziren osagarriekin; halaber, egiaztatu dugu lehendakariari Batzar Nagusiak onetsitako zenbatekoaren arabera ordaintzen zaiola.

Mankomunitateko langileek bizi- eta istripu-aseguru bat badaukate; aseguru hori ez dago sartuta SCPSA sozietatearen pentsio-planean.

Mankomunitateko organo kolegiatuetako kideek dieta bat jasotzen dute bilkuretara egiazki joateagatik; 2010eko ekainaren 1etik egunean 194,78 eurokoa da. 2013an, dieten guztizkoa 62.135 eurokoa izan zen.

Eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua

Mankomunitateak eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua ematen du eskualdeko 18 udalerritan. Zerbitzua emateko modua zeharkako kudeaketa da, merkataritza sozietate baten bitartezkoa.

Honakoak izan dira garraioaren kostua eta haren finantzaketa azkeneko hiru ekitaldietan:

	2011	2012	2013
Kostuak, guztira	32.630.801	33.215.100	31.058.806
Diru-sarrerak, guztira	31.392.247	32.435.466	31.204.397
Zerbitzuaren superabita/defizita	-1.238.554	-779.634	145.591
Finantzatzea diruzaintza-gerakin atxikiarekin	1.161.566	1.050.264	
Zerbitzuaren defizita	76.988		

2011-2012 Garraio Plana, Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak ekitaldi horietarako onetsitakoa, 2014. urtera arte luzatu zen, urte hori barne. Agiri horretan, garraioaren finantzaketa ezarri zen –erabiltzaileen tarifak, Foru Administrazioaren ekarpenak eta udalerrien ekarpenak–, ekitaldi horietan zerbitzuaren kostu guztiak estaltzerainokoa.

Hala eta guztiz ere, garraio zerbitzuak 2011n eta 2012an defizita sortu zuen, bidaiarien jaitsi-era dela-eta tarifen bidezko diru-sarrerek behera egin zutelako, nahiz eta Mankomunitateak onetsi zituen tarifa-mota batzuk planean aurreikusitakoak baino handiagoak izan.

2011ko, 2012ko eta 2013ko ekitaldietan, zerbitzuaren guztizko kostuak honako gradu hauetaraino estali ziren tarifekin eta ekarpenekin:

	2011	2012	2013
Kostuak, guztira	32.630.801	33.215.100	31.058.806
Tarifak	% 54	% 53	% 56
Foru Administrazioaren ekarpena	% 20	% 22	% 24
Udalen ekarpena	% 15	% 16	% 17
Tarifekin eta ekarpenekin estalitako kostua	% 89	% 91	% 97

Erabiltzaileen tarifekin eta Administrazioaren nahiz udalen ekarpenekin estali gabeko garraio-kostua finantzatu zen aurreko ekitaldietan sortutako gerakinarekin eta emakida hidroelektrikoen ustiaketan sortutako energia salduz Iruñerriko Zerbitzuak SAK lortutako diru-sarrerekin.

2013an, guztizko garraio-kostuaren ehuneko 87 enpresa emakidadunak zerbitzua emateagatik izan duen exekuzio-kostuari dagokio. Egiaztatu dugu kontratua arautzen duten klausulen orrian jasotako irizpide eta formulekin kalkulatu dela, eta ezarri direla emakidadunarekin kontratutako prezioa, egindako orduak eta ibilitako kilometroak kalkulatzeko formula definitzen duten aldagaiak kontrolatzeko prozedurak.

Halaber, Mankomunitateak ezarri ditu erabiltzaileen tarifen dirua biltzearen gaineko kontrol prozedurak; tarifa horien ehuneko 83 txartelen bidez ordaintzen dira.

Eskualdeko hiri garraioko zerbitzuaren enpresa esleipendunak 2009an, batez beste, 40,98 milioi bidaiarientzako konpromisoa eskaini zuen 2010etik hasi eta 2019ra arteko aldirako, sarearen azterlan diagnostiko batean oinarritua. Bost enpresa aurkeztu ziren, eta, batez beste, 39,38 eta 41,01 bidaiari bitarte eskaini zituzten. 2010etik 2013rako egiazko eskaria txikiagoa izan zen Mankomunitateak gutxienezko gisa finkatutako urteko bidaiari kopurua (37 milioi) baino.

2013ko urtarrilean, enpresa emakidadunak eskatu zuen zerbitzuaren emakidaren berrezarpen ekonomikoa, 2010etik gertatutako errentagarritasun-gutxipena alegatuz. Mankomunitatearen Bazar Nagusiak aho batez erabaki zuen partzialki baiestea oreka ekonomikoaren haustura dela-eta egindako eskaria, bidaiari kopuruaren konpromisoari dagokionez, legez ezarritako baldintzak betetzen zirelako, eta aldi baterako aldatu zituen kontratuaren zenbait baldintza.

Mankomunitateak justifikatu zuen ezen, emakidaren kudeaketa egokia tarteko, krisiaren luzatzea eta sakontzea –2009an emakida esleitzean aurreikusten ez zirenak– izan zirela 2010etik bidaiarien kopurua jaistera ekarri zutenak.

Mankomunitateak, arautze-orrian ezarritakoaren arabera ebatzi zuen emakidadunari eman beharreko kalte-ordainari buruz. Horri dagokionez, txosten juridiko, tekniko eta ekonomiko bat eman zuen, non gertatutako inguruabarrak, aurretik ezin jakin zitezkeenak, orokorrean baloratu ziren, emakidadunak emakidaren oreka ekonomikoaren haustura eskatzeko alegatutako arrazoiz guztiak aztertu zituen eta entzunaldia eman zion.

Bestalde, enpresa emakidadunaren kontuak aztertu zituen, eta batera baloratu zuen emakidadunari ordaintzeko ezarritako formularen osagai guztietako eta ustiaketa-emaitzetako bidaiari jaitzieraren ondoriozko kalte ekonomikoa. Emakidadunaren ordainketa aztertu zen, ustiaketa etekina kontuan hartuta, hau da, zerbitzu-ematearen diru-sarrerek aukera ematea ustiaketa-gastuak estaltzeko, ibilgetua amortizatzeko eta etekin tarte bat edukitzeko. Erabakitako konponbidearekin, emakidadunak, 2014tik 2016ra ustiaketa-gastuen ehuneko bat eta ehuneko lau bitarteko ustiaketa-emaitzak lortuko zituen; tarte hori egokitzat jo daiteke.

Salestarren higiezina erostea

2010eko ekitaldian, Salestarren higiezina erosi zen, 4.500.000 euroko prezioan. Izapidetzea, oro har, aplikatzekoa den araudian ezarritakoaren arabera egin zen. Erosketa-eragiketa hori lotu zen higiezinaren titularra zen finantza-entitatearekin erosketa-kostuaren ehuneko 90ren pareko mailegu bat hartzearekin, 4.050.000 eurokoa, eta eragiketa lotu bat zenez, ez zen beste finantza-entitatearen eskaintzarik aztertu.

2013rako eta 2014rako aurreikusita zeuden zaharberritze-obra, 11,48 milioi eurokoa, ez da egin.

2013an, Mankomunitateak eraikina dela-eta 5.514 euroko mantentze-gastuak izan zituen. Gainera, eraikina erosteko itundutako maileguaren interesetan eta amortizazioan 327.845 euro ordaindu zituen.

Higiezinaren alokairu-gastuak 193.495 eurokoak izan ziren 2013an.

Kontratazio administratiboa

Mankomunitateak publizitate eta lehia printzipioak bete ditu Ganbera honek aztertutako bost hornidura- eta laguntza-kontratuak esleitzeko garaian. Kontratu horiek 2011-2013 aldian esleitu ziren.

Finantza-egoera

Ondoren Mankomunitateak 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan izan duen finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk emanen ditugu.

	2011	2012	2013	Aldea (%) 2012/2013	Aldea (%) 2011/2013
Aurrezki gordina	-4.186.384	-1.855.630	671.442	136	116
Finantza-zama	347.792	378.394	327.923	-13	-6
Aurrezki garbia	-4.534.176	-2.234.024	343.519	115	108
Zorpetze-maila (%)	% 3,07	% 2,52	% 2,15	-15	-30
Zorpetze-muga (%)	% -36,99	% -12,38	% 4,39	136	112
Zor bizia	3.840.554	3.630.723	3.391.163	-7	-12
Aurrekontu-emaitza doitu	66.810	-36.750	28.411	177	-57
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.483.241	449.629	475.529	6	-68

2011ko eta 2012ko ekitaldietako aurrezki gordin negatiboaren arrazoia da ez zirela diru-sarrera arruntak sortu udalek eskualdeko hiri garraiorako ekarpenak zirela eta, zeren eta zerbitzu hori finantzatu baitzen 2006an eta 2007an taxi-lizentziei esker lortutako diru-sarrerekin eta eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua zela-eta 2011koa baino lehenagoko ekitaldietan lortutako so-

berakinekin. Diru-sarrera horiek finantza-aktiboetan inbertitu ziren, eta, horrenbestez, ez dira baliabide arrunt gisa hartzen. Hartara, 2011n eta 2012an sortutako finantza-aktiboen bidezko diru-sarrerak 3,77 eta 1,27 milioi eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, eta haiek zirela-eta Mankomunitateak 150.827 euroko errentagarritasuna lortu zuen.

2013an, Mankomunitateak ez du finantza-aktiboetan inbertitutako soberakinik, eskualdeko hiri garraioa finantzatzeko. Ekitaldi horretan, 343.519 euroko aurrezki garbia lortu zuen, behin funtzionamendu gastuak eta finantza-zama finantzatuta; bestetik, diru-sarrera arrunten ehuneko 2,24ra bitarteko zorpetze-gaitasuna zeukan eta 475.529 euroko diruzaintza-gerakina zuen 2014ko ekitaldiko gastuak finantzatzeko.

IV.2. SOCIEDAD COMARCA DE PAMPLONA, S.A. (SCPSA)

Langileen ordainsariak

Iruñerriko Zerbitzuak, SAren 2013. urteko langile gastuek 21.054.104 euro egin zuten, eta ustia-keta-gastu guztien ehuneko 29 egiten dute.

2013an, Sozietateak 452 langile zeuzkan, 134 lanpostu desberdinetan, eta 11 lan-zentroetan egiten zuten lan. Langile guztietatik, 72 libreki izendatu edo kargutik kentzekoak ziren, eta arloko zuzendari, buru eta arduradunei zegozkien.

Izendapen libreko lanpostuetarako langileak zuzendaritzak hautatzen ditu erakundearen beraren langileen artean, eta kanpotik ere ekartzen dira, baldin eta erakundearen barnean horretarako langilerik ez badago.

Sozietatea zuzendari kudeatzaile baten zuzendaritzaren pean antolatzen da, zuzendari batek zuzendutako zortzi arlotan eta arloen menpeko 15 departamentutan.

Sozietateak bere langileekin dauzkan lan-harremanak 2012ko uztailaren 23an 2010-2014 aldiko sinatutako hitzarmen kolektiboan arautu ziren. Hitzarmen hori urtebeterako luzatu ahal da 2015eko abenduaren 31ra arte.

Sozietateko langileen ordainsariak honako kontzeptu hauek osatuak dira:

- Lanpostuen balorazioari buruzko ordainsaria, zeina 29.180 euro eta 85.726 euro artekoa baita libreki izendatzekoak edo kargutik kentzekoak diren lanpostuetan eta 23.372 eta 53.936 euroko artekoa, berriz, gainerako lanpostuetan.
- Lan-baldintzei buruzko ordainsaria, urteko 118,21 eta 2.600,58 euro artekoa. 134 lanpostuetatik 53 lanpostutan –horietatik 13, izendapen librekoak– jasotzen da.
- Antzinasuna: 2013an, 108,1 euro zerbitzu-urte bakoitzeko.
- Plusak: ihesa, gaueko lanaldia, jai-eguna eta plus berezia.

Zuzendari kudeatzailearen ordainsariak

Sozietateko zuzendari kudeatzaileak goi-zuzendaritzako lan-kontratu berezia dauka, Langileen Estatutuari buruzko martxoaren 24ko 1/1995 Legegintzako Errege Dekretuan eta Goi-zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan-harremana arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Kontratuak 2012ko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31ra arteko indarra dauka, eta ordainsari gordin bat ezartzen du, 85.435,36 eurokoa, kontzeptu guztiak hartuta, horren barne direla lehiarik ezeko itunak eta eskusibitatea. Ordainsari hori eguneratu ahal da Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioentzat Aurrekontuei buruzko Legeak ezarritakoari jarraituz.

Alderaketa egite aldera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan (NEKP) sartuta dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioeko sozietate publikoetako zuzendaritzako kideentzat, goi kargudunaren izaera dutenentzat, onetsitako ordainsariak erantsi ditugu, kudeaketan daukaten zailtasunaren arabera txikitik handira sailkatuta.

Sozietate mota	Urteko ordainsariak	Ordainsari aldakorra, helburuen arabera (%)	Konplexutasun osagarria (%)
D	55.000	15	0
C	57.750	30	5
B	66.000	40	20
A	77.000	50	40
NEKP	85.250	40	55

Iruñerriko Zerbitzuak, SAko zuzendari kudeatzailearen kontratuak ez du klausula berezirik eta hura amaituta, une horretan aplikatzekoa den legediaren arabera kalte-ordaina egokituko zaio. Kontratuan ez da kalte-ordainik hitzartu.

Zuzendari kudeatzailea ez dago sartuta pentsio-planean. Iruñerriko Zerbitzuak, SAK kontratatutako polizen estaldura dauka: erantzukizun zibila, istripu-asegurua eta bizitza-asegurua.

Administrazio-organoetako ordainsariak

Sozietateko administrazio-organoen ordainsariak 30.970 eurokoak izan ziren 2013an. 2012. urtetik bilkura bakoitzeko 194,78 euro ordaintzen dira, eta PFEZa dela-eta ehuneko 35eko atxiki-pena egiten da.

Bertaratzearen justifikazioa organo kolegiatuaren akten bidez egiten da.

Sozietateak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat dauka administrazio-kontseiluko kide guztientzat; kontseilukideek, gainera, bizitza-asegurua eta istripu-asegurua badauzkate.

Pentsio-plana

Sozietate publikoak pentsio-planak egin ditzake eta hartarako ekarpenak egin, bai eta aseguru kolektiboaren kontratuak ere, Pentsio-plan eta -funtsak arautzen dituen 8/1987 Legearen babesean eta Pentsio-plan eta -funtsak arautzen dituen Legeko Testu Bategina onetsi eta 8/1987 Legea indargabetzen duen 1/2002 Legegintzako Errege-dekretuaren indarrez.

1999an, Ganbera honek gomendatu bezala, Sozietateak pentsio-planen figuraren bidez formalizatu zituen lehendik zeuden pentsio-konpromisoak, eta kanpoko pentsio-funts banakatuak izenpetu zuen, funtsen kudeaketarako entitate batek kudeatua, administratua eta zaindua, pentsio-konpromisoak kanpoan kontratatuzeko nahitaezkotasunari buruzko araudia betetze aldera.

Pentsio-plana zegokion sozietateko enplegatuei erretiro-, ezgaitasun- eta heriotza-prestazioak emateko finkatutako prestazio-modalitateari.

2012an, hura aldatu eta eraldatu zen askotariko plana, ekarpen eta prestazio finkatukoa, izan zedin. Pentsio-planak hobekuntza bat ekarri dio sozietateari, besteak beste honako baldintzak onetsi direlako:

- Sozietatearen urteko ekarpena pentsioa sor dezakeen soldataren ehuneko laura mugatu da.
- Bilakaera-adierazle bat finkatu da, ehuneko bikoia.
- Planeko prestazio guztiak segurtatu dira, eta horren bidez lortu da Sozietateak kaudimenterik eratu behar ez izatea eta lehen bere gain hartzen zituen arriskuak hornitu behar ez izatea. Aseguru-eragiketa horrek ehuneko 6,07ko errentagarritasuna lortu du, eta Sozietateak bere gainetik kendu du ehuneko lauko errentagarritasuna bermatzeko betebeharra.

Erretiro-, ezgaitasun- eta heriotza-prestazioak, errenta moduan ordainduak, ordainketa baka-rean ordainduko dira 2012ko ekainetik aurrera.

Gainera, erabaki zen plana lau urtez behin berrikustea, bai prestazioen ikuspuntutik, bai ekarpenaren ehunekoaren ikuspuntutik ere.

2012ko ekaina baino lehen existitzen ziren partaideen bi kolektiboek, enpresan sartu ziren unearan arabera bereizten zirenak –1985eko urtarrilaren 1a baino lehen ala data horretatik aurrera– honako bi kolektibo bihurtu dira: 1. kolektiboa, planari 2012ko ekainaren 8an atxikitako

partaideak; 2. kolektiboa, gainerako partaideak, eta 3. kolektiboa, 2012ko ekainaren 8an planaren prestazioak jasotzen zituzten partaideek osatua.

2. kolektiboko partaideentzako erretirorako batez besteko estaldura 1. kolektiboaren pentsioa sor dezakeen soldataren ehuneko 1,5era jaisten da, eta plana aldatu aurretik zeuden kolektiboei, antzintasunaren arabera, ehuneko 0,5etik eta ehuneko 1 bitarteko adierazleak aplikatzen zaizkie.

Erretiroko batez besteko prestazioari dagokionez, 140 partaidek 16.000 eta 40.000 euro bitarteko prestazioa jasoko dute ordainketa bakarrean; 277 partaidek 40.000 eta 80.000 bitarte jasoko dute, eta 32 partaidek 80.000 euro baino gehiago jasoko dute.

Pentsio-plana dela-eta Sozietatean kontabilizatutako eragiketak kanpoko profesionalek urtero egindako azterketa aktuarialetan oinarritzen dira. Halaber, plana atxikitzen zaioneko gordailuaren –pentsio-funtsaren– 2013ko ekitaldiko urteko kontuak auditatuta daude eta aldeko iritzia daukate. Pentsio-funtsaren titulartasuna planeko partaide eta onuradunei dagokie.

	2013	2012
Jardunean dauden parte-hartzaileak	447	450
Pentsioa eragiten duten batez besteko soldata	35.924	35.782
Prestazioak kobratzen dituzten pasiboak	55	57
Batez besteko prestazio osagarria	6.624	6.460
Planetik ordaindutako prestazioak	590.319	826.559

Pentsio-planerako ekarpenetarako Estatuko aurrekontu orokorreari buruzko legeetan ezarritako mugak bete dira.

Emandako zerbitzuak

Sozietateak uraren ziklo integralaren zerbitzua, hiri hondakin solidoen bilketa zerbitzuak eta ibai parkearen zerbitzua ematen ditu.

Horietarako guztietarako zerbitzu-gutunak onetsi dira, Mankomunitateko webgunean argitaratuak. Haietan jasotzen dira hartutako konpromisoak eta jarraipen-txostenak, zeinetan konpromisoen betetzea aztertzen baita, haien neurketarako finkatutako adierazle bitartez edo erabiltzaileei egindako asebetetzeari buruzko inkestak eginez. Nabarmentzekoa da hartutako konpromiso guztiak betetzen direla.

2013ko ekitaldian honako hauek izan dira zerbitzu horien kostuak eta haien finantzaketa:

	Uraren ziklo integrala	Hondakinen tratamendua eta bilketa	Ibai parkea
Kostua, guztira	-38.049.162	-31.606.199	800.619
Tasa edo prezioen bidezko diru-sarrerak	25.179.114	27.425.841	
Prezioek zenbateko estaldura (%)	66	87	
Salmentak	1.719.852	2.184.307	
NILSAren diru-laguntza	7.100.426		
Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak	6.691.521	1.446.296	69.585
Udalen ekarpena			324.109
Bestelako diru-sarrerak	948.229	285.674	111.882
Zerbitzuaren superabita/defizita	3.589.980	-264.080	-295.043

Uraren ziklo integralaren zerbitzuen prezioak eta hondakinen bilketaren eta tratamenduaren tasak Mankomunitateak onetsi ditu, eta kasuko ordenantzan jasota daude.

Uraren ziklo integralean aplikatzen diren prezioek zerbitzuaren guztizko kostuaren ehuneko 66 hartzen dute. Ehuneko hori finkatzeko garaietan, ez da sartzen erabiltzaileek ordaindutako saneamendu-kanona, erabiltzaileek ordaindu eta Navarra de Infraestructuras Locales, SA sozietate

publikoak kudeatzen duena. Horrenbestez, uraren ziklo integraletik goi presioan eta tokiko sareetan egiten den saneamendua eta arazketa kenduz gero, aplikatutako prezioak zerbitzu horien guztizko kostuaren ehuneko 98 hartzen du.

Hondakinen bilketarako eta tratamendurako tasak zerbitzuaren guztizko kostuaren ehuneko 87 finantzatzen du.

Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, SAREN arteko harremani buruzko Erregulamenduak ezartzen du Sozietateak bere jarduketa egokituko duela ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera, halako moduz non tarifen guztizko kostuak kudeatzen duen zerbitzu bakoitzaren prestazio-kostua estaliko duen.

Zerbitzuaren kostuak zuzeneko eta zeharkako kostuak hartzen ditu, horren barne direla kostu finantzarioak, ibilgetuaren amortizazioa eta zuzkitutako hornidurak. Zeharkako zergak zerbitzu bakoitzeko langileen gastuen arabera banatzen dira.

Zerbitzuen kostuaren finantzaketatzat hartzen dira zerbitzuei atxikitako azpiegituretan inbertsioak betetzeko jasotako diru-laguntzak, Kontabilitate publikoaren plan orokorreko kontabilitate-irizpideei jarraituz ekitaldiko emaitzari egozten zaizkion neurrian.

Diru-sarrera horiek kontuan hartzen ez badira, Sozietateak emandako zerbitzuetatik bakarrean ere ez litzateke superabitik sortuko, eta ez lirakeke, ezta ere, behar adina baliabide sortuko zerbitzuari atxikitako instalazioak berritzeko, zeren eta kapitaleko diru-laguntzak ekitaldiaren emaitzari egoztean soilik gastutzat hartzen ari baita azpiegituren diru-laguntzarik gabeko atalari dagokion amortizazio-gastua.

2011-2013 aldian, egindako inbertsioen ehuneko 68 finantzatu da kapitaleko diru-laguntzekin.

Bestalde, saneamendu- eta hornidura-sare berriak, behin kasuko toki entitateak haiek hartu ondoren, Iruñerriko Zerbitzuak, SAK haietan baldintza teknikoen betetzeari buruz aldeko txostena eman ondoren, Mankomunitatearen jabetzakoak izatera pasatzen dira, baina kontabilitatean ez daude ez baloraturik ez erregistraturik, eta, horrenbestez ez dira amortizatzen.

Horrenbestez, Sozietatea ez da diru-sarrerekin berreskuratzen ari ematen dituen zerbitzuei atxikitako azpiegituretan egindako inbertsioen kostua, zeren eta amortizazioaren urteko zenbatespenaren bitartez sortutako funtsa, hura kostu historikoaren gainean kalkulatuta, ez baita nahikoa egindako inbertsioa berreskuratzeko.

Sozietateak auto-finantzaketarako gaitasuna dauka, eta 2013an 10,42 milioi euroko baliabide efektiboaren funts bat edo cash flowa lortu du. Funts hori ia osorik ustiaketa-jarduketaren bitartez sortu da.

Kontratazioa

Iruñerriko Zerbitzuak, SAK Kontratuei buruzko Foru Legea eta haren kontratazio arauak bete ditu 2011n, 2012an eta 2013an esleitutako obra-, hornidura- eta laguntza-kontratuen prestaketan eta esleipenean –Ganbera honek aztertu ditu–, eta publizitate- eta lehia-printzipioen betetzea bermatzen duten prozedurak aplikatu ditu.

Geroko egitate gisa, nabarmendu behar dugu ezen 2015eko otsailean, Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak deusez deklaratu zituela hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua kontratatzeko prozedurarako baldintza-orriak eta prozedura oso-osoak. 159 milioi euroko balioa zeukan, 10 urteko eperako.

IV.3. AURREKONTU-EGONKORTASUNA ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNA

2013an, Mankomunitateak eta haren sozietate publikoak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren printzipioak bete zituzten.

Hartara, Mankomunitateak finantzaketa-ahalmena lortu zuen, gastu-araua bete zuen eta haren zor biziak ez zuen gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110eko muga.

Bestalde, Sozietateak, zeina merkatu-sozietatetzat hartzen baita bere salmenta eta zerbitzu-prestazioek produkzio-kostuen ehuneko 50a gainditzen dutelako, finantza-oreka zeukan.

Ondoren, bai Mankomunitateak, bai bere menpeko sozietateak aurreko helburuak direla-eta lortutako emaitzak erakutsiko ditugu.

Mankomunitateak, 2013. urtean, 263.042 euroko finantzaketa-ahalmena zeukan, honako taulan erakusten den bezala:

	2013ko zenbatekoa
Finantzaz besteko diru-sarrerak	15.277.614
Gastu ez-finantzarioak	15.009.643
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	267.971
Ekitaldi korronteko eta itxitako ekitaldietako tasen eta prezioen bidezko diru-bilketaren doikuntzak	-4.929
Finantzatzeko ahalmena	263.042

Gastuari buruzko arauari dagokionez, 2013an zenbakarria den gastuak ez zuen gainditu ekitaldi horretarako aurreikusitako muga, eta 2,39 milioi euroko marjina lortu zen.

2012ko gastu zenbakarria	4.125.497
% 1,7ko igoera	70.133
Aurreikusitako gastuaren muga, 2013rako	4.195.630
2013ko gastu zenbakarria	1.803.504
Gasturako tartea, 2013an	2.392.126

Mankomunitatearen zor biziak 2013an sortutako diru-sarrera arrunten ehuneko 22 egiten du, kreditu-eragiketa berriak ituntzeko ezarritako ehuneko 110eko mugaren azpitik.

Bestalde, Sozietateak 6,13 milioi euroko finantzaketa-gaitasuna zuen 2013ko ekitaldian.

	2013ko zenbatekoa
Diru-sarrerak	70.850.078
Gastuak	64.721.968
Finantzatzeko ahalmena	6.128.110

IV.4. AMAIERAKO ONDORIOA ETA GOMENDIOAK

Jotzen dugu ezen, orokorrean, bai Mankomunitateak, bai haren sozietateak ere egoki kudeatzen dituztela ematen dituzten zerbitzuak, eta kontrol-prozedurak ezarri dituztela haien funtzio-namendu zuzena egiaztatzeko. Halaber, langileen ordainsariak bat datoz Mankomunitatearen plantilla organikoan eta Sozietatearen hitzarmenean onetsitakoarekin. Ibilgetu ez-finantzarioaren eta inbertitu deneko finantza-aktiboen kudeaketa egokia izan da, eta legea bete da obren, laguntza eta horniduraren kontratazio administratiboan zein Salestarren eraikinaren erosketan.

Halaber, gure ustez, bai Mankomunitatean –eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua emanez–, bai sozietatean –uraren ziklo integralaren eta hiri-hondakinen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuen kudeaketan– sortutako gerakinak zerbitzuaren eta haiei atxikitako azpiegituren finantzaketari atxikita daude.

Hartara, Mankomunitatearen kasuan, garraio-planak berak ezartzen du gerakinak zerbitzuaren finantzaketara bideratzen direla.

Sozietatearen kasuan, ematen dituen zerbitzuengatik kobratutako prezio eta tasekin, ez da zerbitzuaren guztizko kostua berreskuratzen ari; zerbitzu horretan, egindako inbertsioen amortizazioa sartzan da. Horrenbestez, horrek esan nahi du azpiegituren arloko etorkizuneko inbertsi-oei ekiteko kanpoko finantzaketa beharko dela, hein batean.

Gomendioak:

- *Mankomunitateko zerbitzu berezietako lanpostua barne-horniduraz betetzea, merezimen-
duen lehiaketa bidez.*

- *Kide guztiei PFEZaren atxikipena aplikatzea Mankomunitateko organo kolegiatuetako bile-
retara joateagatiko dietetan.*
- *Oroitidazkian eskualdeko hiri-garraioaren zerbitzua betetzearen guztizko kostuari buruz in-
formatzea, bai eta emakidadunak erabiltzaileengandik tarifen bidez jasotzen dituen diru-sarrerei
buruz ere.*
- *Mankomunitatearen ondasun eta guztien inbentario balioztatu eta eguneratu bat onestea.*
- *Kontratazio-organoak kontratazio-espeditentea berariaz onestea, eta Sozietateak esleitu-
tako kontratu guztietan txosten juridikoa eta beharrezanez buruzko txostena ematea.*
- *Mankomunitateak jaso eta Sozietateari eskualdatzen dizkion hornikuntza- eta saneamendu-
sare eraiki berriak baloratu, kontabilizatu eta amortizatzea.*
- *Sozietatearen jarduketarako, inbertsioetarako eta finantzaketarako urteko programan bila-
tzen diren helburuak eta lortu nahi diren errentak adieraztea, eta haien exekuzioaren gaineko
jarraipena egitea.*

V. ONDORIOAK

Atal honetan deskribatzen dira egindako fiskalizazioaren harira lortutako ondorio nagusiak.

V.1. PLAN ESTRATEGIKOA

Mankomunitateak eta haren sozietate publikoak onetsitako plan estrategiko indarduna 2013-2016 aldiari dagokiona da. Plan hori Mankomunitatearen eta Sozietatearen jarduketa orientatzeko esparru orokorrean definitzen da, 24 erronka estrategikoren bitartez. Erronka horiek urtero zehazten dira kudeaketa planean.

Hartara, 2013ko kudeaketa planean, 34 proiektu ezartzen dira honako zerbitzu hauetarako: uraren ziklo integrala, hiri hondakinen bilketa eta garraioa, eskualdeko hiri-garraioa, taxia eta maila korporatiboko zerbitzuak. Proiektu bakoitzerako, xedea, urteko helburuak eta esleitutako arduraduna finkatzen dira.

Hilero, helburuak neurtzeko finkatutako adierazleen jarraipena egiten da, eta, urtero, aginte integralaren koadroaren bitartez, aztertzen da urteko kudeaketa-planean ezarritako helburuen betetzea.

2013ko ekitaldiko kudeaketa-plana ebaluatzeko eta aztertzeko hiru txosten jaso dira, bi seihi-lekoak eta bat urtekoa –azken horretan, proiektu bakoitzerako, ezarritako helburuen jarraipena egiten da.

2013ko kudeaketa-planean finkatutako 34 proiektuetatik, 23k gauzatze-maila handia dute, zortzik batez besteko gauzatze-maila dute eta hiru baizik ez daude non gauzatze-maila apala izan den.

V.2. MANKOMUNITATEA

V.2.1. Aurrekontuaren betetzea eta finantza-egoera

Mankomunitatearen 2013rako aurrekontua 2012ko abenduaren 20an onetsi zen, eta 15.843.897 euroko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena zeukan. Hurrengo tauletan haren betetzea eta 2012an sortutako eskubide eta gastuen alderaketa erakusten dugu.

Diru-sarrerak	Aitortutako eskubideak (2012)	2009ko hasierako aurreikuspena	2013ko aldaketa	Behin betiko aurreikuspena 2013	Aitortutako eskubideak (2013)	Betetakoa (%)	2013/12 aldea (%)
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	191.863	114.258	0	114.258	118.390	104	-38
Transferentzia arruntak	14.612.077	15.568.398	0	15.568.398	14.985.570	96	3
Ondarearen eta herri-aprobetxamenduen bidezko diru-sarrerak	188.924	161.241	0	161.241	173.654	108	-8
Kapital-transferentziak	-42.483	0	0	0	0		-100
Finantza-aktiboak	1.274.752	0	0	0	0		-100
Diru-sarrerak, guztira	16.225.133	15.843.897	0	15.843.897	15.277.614	96	-6

Gastuak	Aitortutako betebeharrak (2012)	2013ko hasierako kreditua	2013ko aldaketa	2013ko behin betiko kreditua	Aitortutako betebeharrak (2013)	Betetakoa (%)	Aldea (%) 2013/12
Langile-gastuak	560.082	562.224	0	562.224	523.275	93	-7
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.865.199	2.451.930	238.621	2.213.309	1.972.232	89	6
Finantza-gastuak	168.563	122.722	-7.000	115.722	88.363	76	-48
Transferentzia arruntak	14.423.213	11.874.401	238.621	12.113.022	12.110.665	100	-16
Inbertsio errealak	228.845	600.000	0	600.000	315.108	53	38
Finantza-pasiboak	209.831	232.620	7.000	239.620	239.560	100	14
Gastuak, guztira	17.455.733	15.843.897	0	15.843.897	15.249.203	96	-13

2013an aitortutako eskubideek 15.277.614 euro egin zuten; hain zuzen, behin betiko aurreikuspenen ehuneko 96. Diru-sarrera guztien ehuneko 89 eskualdeko hiri-garraioarekin lotuta daude.

2013an aitortutako eskubideak 2012an aitortutakoak baino ehuneko sei gutxiago izan ziren, batez ere 2012an 1.274.752 euroko finantza-aktiboen bidezko diru-sarrerak egon zirelako, 2013an izan ez zirenak.

2013an aitortutako betebeharrak 15.249.203 euro egin zuten, eta behin betiko kredituen % 96 izan ziren. Haien betetze-maila apala nabarmendu behar dugu, behin betiko kredituen ehuneko 53koa izan baitzen. Aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 90 eskualdeko hiri-garraioarekin lotuta daude.

2013ko gastuak ehuneko 13 txikiagoak izan ziren 2012an aitortutakoak baino, batez ere transferentzia arruntek ehuneko 16 egin zutelako behera. Langile-gastuek ehuneko zazpi egin zuten behera, eta ondasun arrunt eta zerbitzuetakoek ehuneko sei gora.

Ondoren Mankomunitateak 2011-2013 aldian izan duen finantza-egoerari buruzko adierazle batzuk emanen ditugu.

	2011	2012	2013	Aldea (%) 2013/12	Aldea (%) 2013/2011
Diru-sarrera arruntak	11.316.937	14.992.864	15.277.614	2	35
Funtzionamendu gastuak	15.503.321	16.848.494	14.606.172	-13	-6
Aurrezki gordina	-4.186.384	-1.855.630	671.442	136	116
Finantza-zama	347.792	378.394	327.923	-13	-6
Aurrezki garbia	-4.534.176	-2.234.024	343.519	115	108
Zorpetze-maila (%)	% 3,07	% 2,52	% 2,15	-15	-30
Zorpetze-muga (%)	% -36,99	% -12,38	% 4,39	136	112
Zor bizia	3.840.554	3.630.723	3.391.163	-7	-12
Aurrekontu-emitza doitua	66.810	-36.750	28.411	177	-57
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	1.483.241	449.629	475.529	6	-68

2013ko ekitaldian, Mankomunitateak bere funtzionamendu-gastuak eta zorraren finantza-zama diru-sarrera arruntekin finantzatu zituen, eta 343.519 euroko aurrezki garbia lortu zuen. Hala eta guztiz ere, aurreko bi ekitaldietan ez zen aurrezki sortu, zeren eta eskualdeko hiri-garraioaren funtzionamendu-gastuak zerbitzu horretan 2010. urtean eta aurreko ekitaldietan sortutako gerakinekin finantzatu baitziren, bai eta 2006an eta 2007an emandako 90 taxi-lizentziak lortutako diru-sarrerekin ere; izan ere, diru-sarrera horiek udalen ekarpenak konpentsatu zituzten, eta finantza-aktiboetan inbertitu ziren.

Mankomunitatearen 2013ko zor bizia 3.391.163 eurokoa zen, eta 327.923 euroko urteko finantza-zama bat eragin zuen, bai eta diru-sarrera arruntan ehuneko 2,15eko zorpetze-maila ere, ehuneko 4,39ko mugatik behera.

Aurrekontu-emitza doitua 28.411 eurokoa izan zen 2013an.

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 475.529 eurokoa izan zen 2013an; horrenbestez, ahalmen likidoa dago hurrengo ekitaldiko gastuak finantzatzeko.

V.2.2. Langile-gastuak

Mankomunitatearen 2013. urteko langile gastuek 523.275 euro egin zuten, eta gastu guztien ehuneko 3 egiten dute. Haien betetze-mailak behin betiko kredituen ehuneko 93 egin zuen. 2012an aitortutakoak baino ehuneko 7 gutxiago izan ziren, batez ere 2013an ez zelako egon Lehendakartzako behin-behineko lanposturik.

Honakoa izan zen 2012ko eta 2013ko langile-gastuen osaera:

	Aitortutako betebeharrak (2012)	Aitortutako betebeharrak (2013)	Aldea (%)
Goi karguen soldatak	55.547	56.010	1
Batzarkideen eta kontseilarien dietak	60.577	62.135	3
Kabineteko langileen soldatak	28.632	0	-100
Funtzionarioen soldatak	332.284	328.980	-1
Gastu sozialak	83.042	76.150	-8
Langile-gastuak, guztira	560.082	523.275	-7

Mankomunitateak ez zien bere langileei ordaindu 2012ko abenduko aparteko soldata, Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurri buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuta, baina abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean, ordaintzeko betebeharrak aitortu zuen 2012an, urte horretako ekaineko aparteko soldataren kopuru berekoa, erosahalme-

naren galera zela-eta jaso beharreko osagarriaren kontzeptuan. Osagarri hori 2013ko urtarrilean ordaindu zuen.

28/2012 Foru Legeak 2013ko urtarrilaren 3an hartu zuen indarra, NAOn argitaratu eta biharamunean, eta horrek zalantzak planteatu zituen 2012rako aurreikusten dituen neurrien baliozkotasunari buruz. Hori dela eta, “2013an foru lege hori aplikatuz Nafarroako toki entitate batzuek hartutako neurrien segurtasun juridikoa bermatzeko”, Nafarroako Parlamentuak uztailaren 2ko 25/2013 Foru legea onetsi zuen, zeinak 28/2012 Foru Legea aldatzen baitu, 2013ko abuztuaren 31ra arte luzatzen baitu Nafarroako administrazio publikoek beren langileei ordainezko osagarria pagatzeko. Foru lege horren aurka, 2013ko uztailaren 30ean, konstituzio-contrakotasuneko errekurtsioa aurkeztu zen, Konstituzio Auzitegiak onetsia; izan ere, auzitegi horrek haren aplikazioa bertan behera utzi zuen 2013ko irailaren 14an. 2013ko abenduaren 17an, Konstituzio Auzitegiak erabaki zuen 2013ko irailean deklaraturako eteteari eustea.

Kontraesanean dagoen araudia eta aurkeztutako errekurtsioak direla eta, jotzen dugu egoera honetarako behin betiko konponbidea instantzia judizial eskudunek hartzen dituzten erabakien menpe egonen dela.

Honako hau izan zen Mankomunitatearen egitura organikoaren irudikapen grafikoa 2013an:

Organigrama



Mankomunitatearen plantilla organikoak, 2013ko ekitaldirako onetsiak, honako sei lanpostu jaso zituen, guztiak ere funtzionario izaerakoak.

	Kopurua	Osagarriak		
		Esklusibitatea	Lanpostua	Zuzendaritza postua
Lehendakaria				
Lehendakaritzako kabineteko behin-behineko langileak				
Idazkaritza Nagusia	1	55	75	3,72
Kontu-hartzaitza	1	55	75	3,72
Aholkularitza juridikoaren zuzendaritza	1	55	63,72	
Kontratazioaren eta kontrol juridikoaren atala	1	55	33,72	
Kontrol juridikoaren atala	1	55	13,72	
Administrazio orokorreko teknikaria	1	55		
Guztira	6			

Lanpostu guztiak A mailakoak dira, eta ehuneko 55eko esklusibitate-osagarria dute esleitua. Gainera, Idazkaritza Nagusiaren eta Kontu-hartzaitzaren lanpostuek ehuneko 75eko lanpostu-osagarria dute, bai eta ehuneko 3,72ko zuzendaritza-postuaren osagarria ere.

Aholkularitza juridikoaren zuzendaria zerbitzu berezietako egoeran dago, eta postu hori kontratazio ataleko buruak betetzen du; azken horren postua, berriz, kontrol juridikoaren ataleko buruari esleitu zitzaion, eta horrek utzitako postua araubide administratiboko lan-kontratudun batek betetzen du.

Ez dago jasota aholkulari juridikoaren postuaren barne-betetzea, ez eta kontratazio-ataleko buruarena ere, merezimenduen lehiaketaren bidez egin direnik.

Mankomunitateko langileek ez dute pentsio-planik, bai, berriz, bizitza- eta istripu-asegurua.

Mankomunitateko langileen ordainsariak aztertu ditugu, eta egiaztatu dugu atxikita dauden lanpostuari dagozkiola, eta plantilla organikoan ageri diren ordainsariak jasotzen dituztela.

Mankomunitateko lehendakariak arduraldi eskusiboko araubidean dihardu. 2013an, 56.010 euro gordin jaso zituen, Batzar Orokorraren 1988ko erabakiari jarraituz; izan ere, orduan kargu horretarako Idazkaritza Nagusiko lanpostuarenaren antzeko ordainsaria onetsi zen, zuzendaritza-lanpostuaren osagarria kenduta, zeren eta hori urtero KPlaren arabera igotzen baita. 2008. urte-tik aurrera, ordainsaria ez da handitu, eta 2010ean ehuneko zortzi jaitsi zen.

Mankomunitateko, Batzar Orokorreko, eta Batzorde Iraunkorreko organo kolegiatuetako ki-deek, 2010eko ekainaren 1etik, 194,78 euroko dieta bat jasotzen dute bilkuretara egiazki joatea-gatik, bertaratu direneko bileren kopurua zein den ere. Partaide direneko organoen bileretara joateko betebeharra daukate, hori eragozten duen arrazoirik ez badago.

Honako hauek izan ziren batzarreko kideek 2011n, 2012an eta 2013an jasotako dietak:

	2011	2012	2013
Zenbatekoa	79.470	60.577	62.135
Dieta kopurua	408	311	319

Kide batek ez du dietarik jasotzen, zeren eta uko egin baitzien 2013ko hirugarren hiruhilekoan.

Ez zaie PFEZaren atxikipenik egiten Mankomunitateko ordezkari-tza-organotako kide guztiei; soilik hura eskatzen dutenei egiten zaie.

Organo kolegiatuetako bileretara joatea bilkuren akten bidez kontrolatzen da, eta hiru hilez behin kontu-hartzaitzara bertaratzeen eta jaso beharreko zenbatekoen xehetasunak igortzen dira.

V.2.3. Eskualdeko hiri-garraioa

Mankomunitateak, eskualdeko hiri garraioaren zerbitzua ematen du eskualdeko 18 udalerritan, 2009an 10 urterako esleitutako emakida baten bitartez.

Zerbitzu hori araututa dago Mankomunitateak eta Foru Administrazioak 2011-2012 aldirako onetsitako eta 2013rako eta 2014rako luzatutako Garraio Planean.

Honakoak izan dira garraioaren kostua eta haren finantzaketa azkeneko hiru ekitaldietan:

	2011	2012	2013
Zerbitzua ematearen kostua	27.784.946	28.065.701	27.247.381
Inbertsioaren kostua	2.953.279	3.010.931	2.999.647
Kudeaketa-pizgarriak	-192.857	-307.087	-789.728
<i>Emakidadunaren kostuak, guztira</i>	<i>30.545.368</i>	<i>30.769.545</i>	<i>29.457.300</i>
Mankomunitatearen kostu berekiak	1.591.983	1.484.433	1.601.506
Emakidaren berrezarpen ekonomikoari buruzko epaiaren ordainketa		961.122	
Eskualdeko hiri garraioaren funtsaren inbertsioa	493.450		
Zerbitzuaren kostua, guztira	32.630.801	33.215.100	31.058.806
Erabiltzaileen tarifen bidezko diru-sarrerak	17.644.245	17.650.673	17.513.250
Foru Komunitateko Administrazioaren ekarpena	6.677.910	7.328.043	7.464.562
Udalaren ekarpena	2.903.296	5.294.052	5.329.105
Taxi lizentzien bidezko diru-sarrerak	1.965.552	0	0
Iruñerriko Zerbitzuak, SAren ekarpen berezia	0	518.792	623.295
Taxien bidezko tasak eta diru-sarrerak	145.278	175.993	109.073
Bestelako diru-sarrerak	248.911	193.161	165.112
Eskualdeko hiri garraioaren funtsen erabilera	1.807.055	1.274.752	0
Zerbitzuaren diru-sarrerak, guztira	31.392.247	32.435.466	31.204.397
Zerbitzuaren superabita/defizita	-1.238.554	-779.634	145.591
Finantzatzea diruzaintza-gerakin atxikiarekin	1.161.566	1.050.264	
Zerbitzuaren superabita/defizita	-76.988	270.630	

Garraio zerbitzuaren kostuak

Eskualdeko hiri-garraioaren zerbitzuaren kostua emakidaren kostuak eta Mankomunitatearen kostu berekiek osatzen dute.

a) Emakidaren kostuak: Mankomunitateak enpresa emakidadunari eragiketa-eta inbertsio-kostuen eta zerbitzu-tarifen bidezko diru-sarreraren arteko aldea ordaintzen dio, kudeaketari dagozkion pizgarriak eta penalizazioak kenduta, kontratua arautzen duen orrian ezarritako formulari jarraituz.

Formula hori erabaki zen zerbitzua ordaintzeko aukera desberdinak ebaluatu ondoren; horien artean hautatu zen Mankomunitateak eta emakidadunak eragiketaren arriskuak eta zerbitzuaren erabiltzaileen diru-sarreraren arriskuak elkarrekin banatzean zetzana.

Egiaztatu dugu 2011ko, 2012ko eta 2013ko zerbitzuaren eragiketa-kostuak, enpresa emakidadunak fakturatuak, kalkulatu direla kontratua arautzen duen orriak ezarritako formularen arabera; hau da:

$$C_o = P_H * H + P_K * K$$

Co: zerbitzu-eragiketaren kostua

PH : BusxOrdu erabilgarriko prezioa

H: egiazki egindako BusxOrdu erabilgarrien kopurua

PK : BusxKilometro erabilgarriko prezioa

K: egiazki ibilitako BusxKilometro erabilgarrien kopurua

Enpresa emakidadunak eskainitako prezioak aplikatu ziren, KPlaren eta erregaien prezioen aldearen arabera gaurkotuak, bai eta egindako ordu eta kilometroak ere, Mankomunitateak egiten dituen kalkuluen arabera, honakoak kontuan hartuta: garraioaren plangintza, linea kopurua eta egutegia eta funtzionamendu-ordutegiak. Datu horiek Mankomunitateak egindako txosten batean oinarrituta daude, eta enpresa emakidadunak aurkeztutako likidazioarekin kontrastatu dira. Hilero bi entitateek neurketa-akta bat sinatzen dute.

Klausulen orriak aurreikusten du emakidadunak ustiaketarako laguntza-sistemari buruzko aplikazio bat edukitzea, eta sistema horrek Mankomunitateari informazioa igortzea egindako ordu kopuruari eta ibilitako kilometroei buruz. Sistema horren erabateko ezarpena ez da amaitu.

Mankomunitateak, ekitaldi bakoitzean, enpresa emakidadunarentzako transferentzia arrunteko gastu gisa kontabilizatzen du eragiketa-, mantentze-, informazio eta inbertsio-kostuak, bai eta kudeaketa-pizgarriak eta erabiltzaileen tarifen bidezko diru-sarrerak ere, guztiak ere ekitaldiko urtariletik azarora bitartekoak, bai eta aurreko urtearen likidazioa ere.

Aurreko ekitaldiko likidazioa aurrekontu-ekitaldiari egozteak ez du aldatzen zerbitzuaren urteko kostuaren zenbatekoa.

Ekitaldi bakoitzean, Mankomunitateak, hilero, konturako ordainketak egiten ditu, aurreko urtean egindakoak kontuan hartuta egindakoak. Ordainketa horiek amaierako likidazioan erregulizatzen dira, ekitaldian egiaz izandako kostuei eta diru-bilketari egokituta.

Inbertsio-kostuak honakoek osatzen dituzte: emakidadunak egindako inbertsioen amortizazio tekniko gehi inbertsioen finantzaketaren kostua, hileroko euriborraren batez besteko interes tasa gehi 0,25 aplikatuta.

Emakidadunak fakturatutako kostuak garraio-planean aurreikusitakoak baino txikiagoak izan dira. Alde batetik, interes tasa planean ezarritakoa baino txikiagoa izan da; bestetik, amortizazio-kostua ere txikiagoa izan da, flota berrituak funtzionamenduan hasteko datan izandako atzerapenaren eraginez, inbertsioen betetzea atzeratu baita, bestak beste ordainketa-sistemari eta ustiaketan laguntzeko sistemari dagokienez.

Kudeaketarako pizgarriak zerbitzuaren erabilpenaren eta kalitatearen arabera dira. Lehenak egiaz izan diren bidaiari-kopuruaren arabera kalkulatu dira, eta kopuru hori 2011-2013 aldi guztian zehar, txikiagoa izan da aurreikusitakoa baino; horrek penalizazioak ekarri dizkio enpresa emakidadunari. Hala eta guztiz ere, kalitatea dela-eta eman beharreko pizgarriak, urteko azterlan eta inkestetan oinarrituak, positiboak izan dira.

b) Mankomunitatearen kostu berekiak, garraio-zerbitzuari egotzitakoak, honako gastuei dagozkie: publizitatea, zerbitzuaren kalitatea baloratzeko asebetetzeari buruzko azterlan eta inkestak, ordainketa kontrolatzeko zerbitzua, txartelen erreforma eta Iruñerriko Zerbitzuak, SAK zerbitzu horretan diharduten langileengatik fakturatutakoa. Lagin batean egiaztatu dugu gastuak justifikatuta eta onartuta daudela.

c) 2012. urtean, Mankomunitateak 961.122 euro ordaindu zizkion, interesei zegozkien 7.659 euro barne, garraioaren aurreko emakidadunari, 2012ko otsailaren 1eko auto bati jarraituz.

Iruñerriko eskualdeko hiri-garraioaren zerbitzuaren aurreko emakidadunak gora jotzeko errekurtsua aurkeztu zuen Nafarroako Administrazio Auzitegian 2007ko eta 2009ko ekitaldietako behin betiko likidazioen aurka. Nafarroako Administrazio Auzitegiak, 6613/2012 Ebazpenaren bitartez, partzialki onetsi zuen errekurtsua, eta xedatu zuen likidazio horiek berritik egin zitezen, aipatutako ebazpenean adierazitako irizpideekin.

Mankomunitateak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu zuen 6613/2013 Ebazpenaren aurka. Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren 90/2014 epaiaz ezetsi egin zen errekurtsu hori. Mankomunitateak apelazio errekurtsua aurkeztu zuen epai horren aurka Nafarroako Auzitegi Nagusian. Errekurtsu hori epaiaren zain dago.

Garraio zerbitzuaren finantzaketa

Garraioaren kostua finantzatzen da erabiltzaileen tarifen bidez –Mankomunitateak onetsiak–, Foru Komunitateko Administrazioaren eta zerbitzuaren prestazio-esparruko udalerrien ekarpenen bidez, taxien diru-sarreraren bidez eta markesinen publizitate-kanonaren bidez, besteak beste.

a) Zerbitzuaren tarifak

Garraioaren emakida arautzen duen orriak ezartzen du Mankomunitateak finkatutako tarifak zerbitzuaren kostua baino txikiagoak izan ahalko direla, inguruabar sozial eta ekonomiko aipagarrien arabera.

Izaera fiskaleko eta jarduera ekonomikoa sustatu eta liberalizatzeko presazko neurriei buruzko ekainaren 7ko 7/96 Errege Dekretu-legeari jarraituz, bidaiarien hiri-garraioaren prezioa autonomia erkidegoaren esparruan baimendutako prezio bat da, eta hura onestea autonomia erkidegoko prezioen arloko batzordeari dagokio. Halaber, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Legeari jarraituz, tarifak aldatzeko espedienteetan aginduzkoa da kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteei entzutea. Mankomunitateak izapide hori bete egiten du.

Mankomunitateak 2011ko, 2012ko eta 2013ko ekitaldietarako onetsitako prezioak Nafarroako Gobernuaren prezioen batzordeari aurkeztu zitzaizkion, onets zitzan, eta 2011-2012 garraio-planeari ezarritako tarifa-esparruari dagozkio. Horren salbuespena da transbordonako tarifa ez zela onetsi. Egiaztatu dugu aplikatu egin direla ekitaldi bakoitzean onetsitako tarifak; honakoak izan ziren, hain zuten:

Txartel bakoitzeko prezioa	2011	2012	2013
Arrunta	1,15	1,20	1,3
Sanferminetako arrunta	1,20	1,25	1,5
Bono busa	0,58	0,61	0,65
Diru-sarrera mugatuak dituzten 65 urtetik gorako pertsonak	0,15	0,16	0,16
65 urtetik gorakoak	0,30	0,31	0,32
Familia ugariak	0,41	0,43	0,45
Ondare mugatua duten 52-65 urteko langabetuak	0,30	0,31	0,32
Ezgaitasuna duten pertsonak	0,30	0,31	0,32
Gaueko tarifa		1,00	1,00
Garraiatutako erabiltzaile bakoitzeko batez besteko diru-sarrera	0,48	0,51	0,53
Tarifen bidezko diru-sarreraren kostuen estaldura (%)	54	53	56
Tarifen bidezko diru-sarreraren kostuaren estaldura, Planaren araberakoa (%)	56,8	59,1	

2011-2012 garraio-planeari, beharrezkotzat jo zen tarifak urtero igotzea, halako moduz non garraiatutako erabiltzaile bakoitzeko batez besteko diru-sarrera, BEZik gabe, aurreko urteko KPlaren arabera igoko den. Mankomunitateak onetsitako tarifak 2011 eta 2012. urteetarako garraio-planeari zenbatetsitakoekin berdinak edo goragokoak izan ziren, eta garraiatutako erabiltzaile bakoitzeko batez besteko diru-sarreraren alde Foru Komunitatean ekitaldi horietan izandako KPltik gorakoa izan zen.

Aurrekoa gorabehera, 2011n eta 2012an bidaiari kopuruan izandako beherakada, planeko aurreikuspenekin alderatuta, ekarri zuen tarifa errealean bidezko diru-sarrerak ehuneko lau eta 10 txikiagoak izatea 2011n eta 2012an, hurrenez hurren.

Zerbitzuaren kostua tarifen bidez estaltzeko maila ehuneko 54, 53 eta 56koa da, hurrenez hurren, 2011n, 2012an eta 2013an. Portzentaje horiek txikiagoak dira 2011-2012 garraio-planeari urte horietarako aurreikusitako tarifak aplikatzen heldu direnak baino.

Iruñerriko bidaiari-garraio erregularrari buruzko 8/1998 Foru Legeak ezarri zuen, garraio publikoaren eskuragarritasuna eta indartzea bermatuta egon daitezen garraio pribatuaren aldean,

erabiltzaileen txartelen bidezko zuzeneko zerbitzu-finantzaketa ez dela inoiz ere zerbitzu-kostuaren ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Xedapen hori ekainaren 18ko 11/2014 Foru Legearen bidez gehitu zen.

Garraio-planean aurreikusten zen 2012an tarifen esparru berri bat ezartzea, hileroko abonua eskaintzen dituen, ikasle, langile eta abarrentzat, edo zerbitzuaren erabilpena erakartzeko bestelako moduak, eta pertsona-taldeentzako edo bezero-fideltasunaren arabera deskontu-irizpideak ezartzen zituen. Tarifa horiek 2014an onetsi ziren, 2015ean indarrean sartzeko xedez.

Tarifen ehuneko 83 txartel bidez kobratzen dira, eta gainerakoak, berriz, eskudirutan. Txartel bidezko kobrantzak Mankomunitateak jasotzen ditu, eta emakidadunari transferitzen dizkio garraioa erabiltzeagatik txartelaren kontsumoen arabera. Hilero enpresa emakidadunaren datuekin berdinkatzen ditu. Eskudirutako diru-sarrerak zuzenean kobratzen ditu gidariak, eta diru-bilketa enpresa emakidadunak jasotzen ditu; aldi berean, txartelaren salmenta Mankomunitatearen sistema informatiko batean erregistratzen da.

Ordainketa-bideen sistema zentralizatuaren bidez, txarteletako datuak alderatzen dira emakidadunak jartzen dituen makina deuseztatzaileen datuekin eta errekarga sareko datuekin, halako moduz non datu-base bat sortzen baita txartel eta mugimendu guztiekin.

b) Gobernuaren ekarpenak.

Nafarroako Gobernuaren 2011tik 2013rako ekarpenak, garraio zerbitzuaren finantzaketarakoak, honakoak izan ziren:

	2011	2012	2013
Zerbitzuaren kostua, guztira	32.630.801	33.215.100	31.058.806
Foru Komunitateko Administrazioaren ekarpena	6.677.910	7.328.043	7.464.562
Kostuaren gaineko %	20,4	22	24
Planean aurreikusitako kostuaren gaineko %	20,9	22	

2011n eta 2012an, Nafarroako Gobernuak 2011-2012 garraio-planean zerbitzua finantzatzeko aurreikusitako zenbatekoak jarri zituen, eta 2013an, berriz, planean 2012rako aurreikusitakoa, Nafarroako ekitaldi horretako KPlarekin gaurkotua.

c) Udalen ekarpena.

Udalek 2011ko eta 2012ko ekitaldietan egindako ekarpenak –udalerrri guztientzako atal finko batek eta biztanle-kopuruaren arabera atal aldakor batek osatuak– bat datoz 2011-2012 garraio-planean zenbatetsitako aurreikuspenekin. 2013ko ekarpena planean 2012ko ekitaldirako aurreikusitakoa izan zen, KPlaren arabera eguneratua.

	2011	2012	2013
Zerbitzuaren kostua, guztira	32.630.801	33.215.100	31.058.806
Udalerrrien ekarpena ⁽¹⁾	4.849.535 ⁽²⁾	5.189.002	5.329.105
Kostuaren gaineko %	14,8	15,6	17,1
Planean aurreikusitako kostuaren gaineko %	15,0	15,6	

(1) Ez da jaso Arangurengo Udalen ekarpena, industrialdeetarako esperientzia pilotu baterako jarritakoa: 19.913 euro 2011n eta 105.010 euro 2012an.

(2) Kopuru horretatik, 1.965.552 euro taxi-lizentzien bidezko diru-sarrerekin konpentsatu ziren.

Garraio zerbitzuaren defizita

Garraio zerbitzuaren finantzaketak, 2011-2012 planean ezarritakoak, zerbitzuaren kostu osoa estaltzen zuen. Garraio-planeko aurreikuspenetatik izan diren desbideratzeak, bai kostuetan, bai finantzaketan, jada zerbitzuan defizita eragin dutenak, nagusiki zor zaizkie tarifen bidez diru-sarrerara gutxiago jaso izateari, bidaiari-kopurua jaistearen ondorioz. Horixe da datu hauetatik eratorzen dena:

2011	Plana	Betetakoa	Aldea
Betetzearen kostu doitua ⁽¹⁾	27.251.482	27.801.998	% 2,02
Kudeaketa-pizgarriak	0	-192.857	
Mankomunitatearen kostu berekiak	1.670.292	1.591.983	% -4,69
Inbertsioaren kostua	3.359.081	2.953.279	% -12,08
Funtsaren inbertsioa	0	493.450	
Kostua, guztira	32.280.855	32.647.853	% 1,14
Finantzaketa:			
Erabiltzaileen tarifak	18.360.480	17.644.245	% -3,90
Diru-sarrera berekiak	346.145	394.189	% 13,88
Gobernuaren ekarpena	6.767.640	6.677.910	% -1,33
Udalaren ekarpena ⁽²⁾	4.849.535	4.849.535	
Arangurenekin egindako hitzarmena	150.000	19.913	% -86,72
Gerakina	1.807.055	1.807.055	
Finantzaketa, guztira	32.280.855	31.392.847	% -2,75
Defizita	0	1.255.060	
Bidaiari kopurua	38.027.273	36.452.339	% -4,14

(1) Kalkulatutako betetze-kostua, aurreko urteko ekitaldiko likidazioa sartuz eta aurtengoa kenduz.

(2) Kopuru horretatik, 1.965.552 euro taxi-lizentzien bidezko diru-sarrerekin konpentsatu ziren.

2012	Plana	Betetakoa	Aldea
Betetzearen kostu doitua ⁽¹⁾	27.809.723	28.368.592	% 2,01
Kudeaketa-pizgarriak	0	-307.087	
Mankomunitatearen kostu berekiak	1.855.041	1.484.433	% -19,98
Inbertsioaren kostua	3.530.638	3.010.931	% -14,72
Epaia	0	961.122	
Kostua, guztira	33.195.402	33.517.991	% 0,97
Finantzaketa:			
Erabiltzaileen tarifak	19.620.716	17.650.673	% -10,04
Diru-sarrera berekiak	273.976	369.154	% 34,74
Gobernuaren ekarpena	7.330.406	7.328.043	% -0,03
Udalaren ekarpena	5.189.002	5.189.042	
Arangurenekin egindako hitzarmena	0	105.010	
Gerakina	781.302	1.274.752	% 63,16
Iruñerriko Zerbitzuak SAren ekarpena	0	518.792	
Finantzaketa, guztira	33.195.402	32.435.466	% -2,29
Defizita	0	1.082.525	
Bidaiari kopurua	39.074.343	34.738.115	% -11,10

(1) Kalkulatutako betetze-kostua, aurreko urteko ekitaldiko likidazioa sartuz eta aurtengoa kenduz.

Defizita partzialki finantzatu zen aurreko ekitaldietan sortutako gerakinarekin eta sozietate publikoaren ekarpenekin. Nafarroako Gobernuaren eta udalen aurreikuspenei ere eutsi zitzairen.

2010eko abenduaren 31n, garraio-zerbitzuak sortutako 2.588.357 euroko gerakina zegoen, garraio-planean onetsitakoaren arabera zerbitzu horrek 2011n eta 2012an izanen zuen kostua finantzatzera bideratua.

Gainera, 2010eko abenduaren 31n, 1.965.552 euroko saldoa zegoen, 2006an eta 2007an baimendutako taxi-lizentzien esleipenaren bidezko diru-sarrerekin sortua. Taxietatik sortutako diru-sarrerak eskualdeko hiri garraioaren zerbitzuari egozten zaizkio, 9/2005 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, Baterako zerbitzurako eremu bakoitzeko taxi zerbitzua erabat sartuko da eremuko hiri garraioko sisteman, eremuko garraio publikoaren plangintza, koordinazioa, batasun ekonomikoa, sustapena eta garapena bateratzeko. Baterako zerbitzurako eremu bakoitzeko toki entitate eskudunaren baliabide ekonomikoak eremuko hiri garraioko sistemako zerbitzuei loturik egonen dira.

2012ko eta 2013ko ekitaldietan, Iruñerriko Zerbitzuak, SAk 518.792 euroko eta 623.295 euroko ekarpena jarri zuen, hurrenez hurren, garraio-zerbitzuaren finantzaketarako. 2011-2012 garraio-planak ez zuen finantzabide hori aurreikusten, eta Mankomunitateak berezitat jo zuen. Sozietate publikoak emakida hidroeletrikoen ustiaketan sortutako energiaren salmentatik heldutako baliabideak jarri zituen, zerikusia ez zutenak uraren ziklo integralaren zerbitzuekin, hiri-hondakinen bilketa eta tratamenduarekin eta ibai parkearen kudeaketarekin, horiexek baitira Sozietateak ematen dituen zerbitzuak.

2011-2012 garraio-planaren betetzea

Planean aurreikusitako jarduketak bideratuta daude honako helburu hauek betetzera:

a) Garraio publikoaren eskaintza hobetzea, hirigintza-garapen berriek sortutako eskariari erantzuteko eta zerbitzua arrazionalizatzeko. Hurrengo taulan erakusten ditugu aurreikusitako jarduketak eta haien ezarpen-data:

	Ezarritako epea	Betetakoa
Garapen berrietarako zerbitzuak		
- Artiberri	2011ko erdialdean	2012ko urtarrilean
- Entremutilvas	2012an zehar	2013
Eskaintzaren arrazionalizatzea:		
- L21 (aireportua) kentzea	2011	2011
- L24 (Zizur Nagusia) kentzea	2011	2011
- Egunerokoan, lehenengo eta azkeneko eskaintza gutxitzea	2011	2012ko urtarrilaren 2a
- Gaueko erreserbako autobusak 2tik 1era gutxitzea	2011	2011ko urtarrilaren lehena

b) Garraioaren kalitatea hobetzea.

Emakidaren hasieran, 2009ko irailaren 1ean, 141 autobuseko flota bat zegoen.

Autobusen flota berritzeko plan bat aurreikusita zegoen, eta termino guzti-guztietan bete zen; hau da, 2011n, 14 autobus erosi ziren eta 2012an, berriz, 12, eta zerbitzutik kendu eta erretiratu ziren ekitaldi berean erositako autobus kopuru berdina.

2013an, bigarren eskuko lau autobus erosi ziren, eta 2011n erretako bat konpondu zen.

Mankomunitateak baimena eta ikus-onespena eman zuen enpresa emakidadunak egindako esleipena arautzeko orriak zirela eta.

Aurreikusitako neurrietako beste bat zen autobus-garaje berriak eraikitzea edo lehendik zeudenak, Mankomunitatearenak izan baina emakidadunari lagatakoak, zabaltzea. Horri dagokionez, Udalaren zuzkiduretarako lursail bat Mankomunitateari lagatzeko itun bat sinatu zen, eta 2014an behar zen hirigintza-aldaketa onetsi zen. Inbertsio hori, ordea, geratuta dago gaur egun.

Hala eta guztiz ere, 2013an oreka ekonomikoaren berrezarpena onesterakoan, erabaki zen egun dauden autobus-garajeak egokitzea. Enpresa emakidaduna 2013an hasi zen obrak egiten,

Mankomunitateak baimena emanda; izan ere, azken horrek erabaki zuen obra horiek hari atxikitzea 522.890 euroko prezioan, 2014ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginekin.

Garraio zerbitzuaren emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzea

a) Zerbitzuaren esleipena

Eskualdeko hiri-garraioaren emakidarako kontratua 2009an esleitu zen, 2008an deitutako lizitazio bat eman gabe deklaratu baitzen. Lizitazio berri horretan, ehuneko 10 igo zen 2008an ezarritako aurrekontua -29.660.623 eurotik 32.626.754 eurora-, eta konprometitutako bidaiari-kopurua jaitsi zen. 2008an prezioa finkatzeari eta ehuneko 10eko igoera orokorrari buruzko justifikazio-txosten bat ageri da.

2005ean, Kontuen Ganberak gomendatu zuen hurrengo emakidan eska zedila kaudimena frogatzea hura aztertzeo aukera ematen duten bitartekoekin, eta azter zedila garraioaren bidaiari erabiltzaileen ustezko kopurua ez ezik denboran izanen zuten banaketa eta gorabehera garrantzizkoak gertatuz gero horrek ekar zitzakeen ondorioak ere.

2009ko lizitazioan, kaudimen ekonomikoa ebaluatu zen, enpresa lizitatuzaileen funts berekietatik abiatuta. Ez zen exijitu, aurreko lizitazioan egin zen bezala, lanbide-arriskuengatik kalteordain aseguru bat edukitzea.

Kaudimen teknikoari dagokionez, exijitu zen, besteak beste, garraio-zerbitzua 150.000 biztanletik gorako populazio batean eman izana eta,aldi berean, gutxienez ere populazio-gune horretan 10.000.000 bidaiari garraiatu izana; halaber, 2010-2019 aldirako eskaintako bidaiari-konpromisoari buruzko justifikazio-azterlana exijitzen zen.

Esleipen-irizpideek 60 punturekin baloratu zuten prezioa eta 40 punturekin proposamen tekniko; azken horren barruan, bidaiari-konpromisoari 12 puntuko gehieneko puntuazioa eman zitzaion.

Mankomunitateak bidaiarien gutxieneko batez besteko kopuru bat finkatu zuen, 37 bidaiariena, 2010etik 2019ra bitarteko aldirako. Enpresa esleipen-hartzaileak urteko batez besteko bidaiari-konpromiso gisa 40.981.277 bidaiariko kopurua eskaini zuen, eta haren proposamena aurkeztutako bost eskaintzetatik hirugarren tokian kokatu zen, urteko batez bestekoa 41.010.294 eta 39.380.329 bidaiarien artekoa baitzen aipatutako 10 urteko eperako.

Esleipen-hartzaileak eskaintako bidaiari-konpromisoari buruz aurkeztu zuen justifikazio-azterlanak eskaria aurreikusten du egungo sareari buruzko diagnosi-azterlan baten bitartez, honako eraginak modu metatuan aintzat hartuta: sareari aldaketarik gabe eustea, demografia, krisia, sorrera berriko lineak, hedapen planifikatuak eta gaueko zerbitzuaren eskaria.

2010-2013 aldian, egiazko eskaria urtero emakida-kontratua arautzen duen orrian finkatutako gutxieneko eskaintzatik beherakoa izan zen, eta enpresa emakidadunak eskatu zuen 2011tik 2013ra arteko urteetako bidaiari-kopurua aztertzeo. Mankomunitateak hein batean onartu zuen hori, hurrengo taulan erakusten den bezala:

Urtea	Enpresa emakidadunarekin bidaiari kopurua dela-eta dagoen konpromisoa	Egiako bidaiariak	Bidaiari kopuruaren berrikuspena, emakidadunak eskatua	Bidaiari kopuruaren berrikuspena, Mankomunitateak onartua	Bidaiari kopuruari buruzko konpromiso berria
2011	38.027.273	36.452.339	-928.589	-547.009	37.480.264
2012	39.074.343	34.738.115	-1.324.221	-864.898	38.209.475
2013	40.125.495	33.213.417	-1.060.593	-976.146	39.149.349

b) Emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzea

2013ko urtarrilaren 23an, eskualdeko hiri-garraioaren zerbitzuko enpresa emakidadunak eskatu zuen zerbitzuaren emakidaren berrezarpen ekonomikoa, alegatuta 2010etik urtero emakidaren errentagarritasuna gutxitzen joan dela. Urte bereko ekainaren 27an, Mankomunitateko Batzar Orokorrak honakoak onetsi zituen aho batez:

- Partzialki baiestea oreka ekonomikoaren haustura dela-eta egindako eskaria, bidaiari-konpromisoaren ondorioz, legez ezarritako baldintzak betetzen baitziren.
- Ezestea enpresa emakidadunak aurkeztutako oreka ekonomikoaren haustura-eskaria, honako kontzeptuei dagokienez: autobus gidarien prestakuntza profesionaleko ikastaroak, gasolio profesionalerako laguntzak gutxitzea, monetaren kalteari buruzko erregulazio fiskal berria eta lan-kontrataziorako eta inbertsioen finantzaketaren kosturako hobariak kentzea.
- Aldi baterako aldatzea 2012tik 2016ra doan aldirako (bi urte horiek barne) kontratuaren baldintzetako batzuk.

Erabaki horiek Mankomunitatearen zenbait txosten teknikotan oinarrituta daude.

Batzar Nagusiak jo zuen hiri-garraioaren zerbitzuaren emakida-kontratua ekonomikoki bidera ezina zela, atzeraldi ekonomikotik heldutako ezusteko eta aurreikusten ezinezko arrazoiengatik, eta Mankomunitatearen eta enpresa emakidadunaren artean banatu behar zirela bidaiari-kopuruaren galeratik heldutako kalteak. Halaber, erabaki zuen ezen, zerbitzuaren jarraitutasuna bermatzeko, interes orokorrerako abantaila handiagoa zuela emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzeko kontratua aldatzea, ezen ez hura amaiazte eta beste lehiaketa bat lizitatzea.

Ezetsi egin zen orrian aurreikusitako penalizazioa bertan behera uzteko emakidadunak egindako proposamena, eta erabaki zen emakidadunari kontratuan aurreikusitako penalizazioaren ehuneko 35 ezartzea, konpromisoan jasotako bidaiarien gutxieneko kopurura iristen ez bazen.

Gainera, emakida-kontratuaren honako aldaketa hauek onetsi ziren, oreka ekonomikoa berrezartze aldera:

- 2013rako prezioak berrikusteko formula aldatzea.
- Orrian emakida dela-eta jasotako inbertsioak berraztertzea: 15 urtetik 17 urtera igotzen da 12 metro edo gutxiagoko autobusen antzintasuna; instalazioak zabaltzeko inbertsioa kentzen da, eta horren ordez, egungo autobus-garajeak egokitzeko obrak eginen dira.
- Biodiesela erabiltzeko betebeharra kentzen da.
- Berritik sartzten da Mankomunitateak ahalmena izanen duela konturako ordainketak ehuneko 15 bitarte jaisteko, aurrekontu-beharrizanen arabera.

Aldaketa horiek guztiak, salbu eta instalazioen zabalpenari dagokiona, aldi baterakotzat jotzen dira, hain zuzen ere 2012-2016 aldirakoak, eta Mankomunitateak baimena ematen badu eta emakidadunak eskatu eta egiaztatzen badu, kontratuaren amaierara arte eutsiko zaie.

Neurri horiek eskualdeko hiri-garraioaren saileko zuzendariak eta kontu-hartzaileak egindako txostenean proposatzen dira, kontratuaren bideragarritasun ekonomikoa aztertu ondoren, eskualdeko hiri-garraioaren emakidaren ustiaketa-emaitzak abiapuntutzat hartuta. Bi teknikari horiek ondorioztatu zuten lortutako ustiaketa-emaitzek ekonomikoki bideraezin egiten zutela emakida, bai enpresa esleipen-hartzailearentzat, bai gainerako lizitatzailleentzat, eskaini zuten bidaiari-kopurua oinarri hartuta.

Garraio-zuzendariak eta Mankomunitateko aholkulari juridikoak egindako txosten teknikoan, orrian ezarritako kopuruaren abiapuntuko historikoa aztertu zen, bai eta bidaiari-eskaintzak justifikatzeko azterlanak ere, eta ondorioztatu zen bidaiari kopuruak behera egin izana aurreikusten ezinezkoa eta apartekoa izan dela, eta, halaber, jaitsiera gertatu dela datu nazionaletan ageri denaren proportzio berean, krisiaren bigarren atzeraldiarekin bat. Mankomunitatearen iritziz, esanguratsua da enpresa emakidadunak 2012an izandako penalizazioak, orrian finkatutako gutxieneko bidaiari-kopurura ez iristegatikoa, ekitaldi horretako kostuaren ehuneko 5,65ekoa izatea.

Emakida-kontratua arautzen duten orriek ezartzen dute Mankomunitateak emakidaren oreka ekonomikoari eutsi behar diola, eta horretarako emakidadunaren banaketa berraztertuko duela, noiz eta, zerbitzuan aldaketarik gertatu gabe, ezusteko edo aurreikusten ezinezko inguruabarrek determinatzen dutenean emakidaren-ekonomiaren haustura, halakotzat joaz bai neurri politiko edo ekonomiko orokorretatik heldutakoak, bai aurreikusten ezinezkoak diren aparteko egitateetatik eratorritakoak ere.

V.2.4. Ibilgetua

Honako hau zen Mankomunitatearen 2011ko ekitalditik 2013ko ekitaldirako ibilgetua:

	2011	2012	2013
Ibilgetu materiala	4.970.324	5.018.574	5.321.182
Lurrak eta ondasun naturalak	468.513	473.013	788.121
Eraikinak	4.501.811	4.501.811	4.501.811
Informazio-prozesuetarako ekipamenduak	0	50.000	50.000
Amortizazio metatua	0	-6.250	-18.750
Ibilgetu ez-materiala	41.514.501	35.148.953	28.488.164
Aplikazio informatikoak	163.725	338.070	338.070
Bestelako ibilgetu ez-materiala	80.958.474	80.958.474	80.958.474
Ibilgetu ez-materialaren amortizazio metatua	-39.607.698	-46.147.591	-52.808.380
Finantza-ibilgetua	30.268.911	28.994.159	28.994.159
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	28.994.159	28.994.159	28.994.159
Obligazioak eta bonoak eta errenta finkoko beste inbertsio batzuk	1.274.752		

Eraikuntzen kontuak Salestarren eraikinaren kostua islatzen du. Eraikin hori 2010ean erosi zen 4.501.811 euroko prezioan, eta Mankomunitatearen egoitza izateko asmoa dago.

2011tik 2013ra, Mankomunitateak 718.208 euroko inbertsioak egin zituen guztira; honakoak izan ziren garrantzitsuenak: 315.108 euro 2013an, Arrosadia-Lezkairuko eta Iturrama Berriko lur-sailletako urbanizazioarengatik, eta 322.580 euro 2011n eta 2012an administrazio elektronikoarekin lotutako inbertsio informatikoetan (272.580 euro aplikazio informatikoetan eta 50.000 euro hardwarean), azken horiek Industria Ministerioaren 287.564 euroko diru-laguntza batekin finantzatuak.

2013ko abenduaren 31ko ibilgetu finantzarioa 28.994.159 eurokoa da, eta Iruñerriko Zerbitzuak, SAREN ehuneko 100eko partaidetza islatzen du. Sozietate hori 1.202.000 euroko kapitalarekin eratu zen, eta kapital hori 1998an zabaldu zen 27.768.095 euroko emisio-prima batekin eta Nafarroako Udal Informatikako Elkartearen sozietate publikoaren akzioen bidezko 24.040 kopuru batekin.

Beste ibilgetu ez-materialaren kontuak 80.958.474 euroko saldoa dauka 2013ko abenduaren 31n. Mankomunitateak jasotako kapitaleko diru-laguntzei, sozietateari aldatuei, dagokie, Sozietatea baita inbertsioak egiten dituen. 1998tik, Sozietateak Mankomunitateari fakturatzen zizkion hark eskuratutako diru-laguntzengatik, eta Mankomunitateak haiek ibilgetu materialaren itzulketa-eskubide gisa kontabilizatzen zituen, Sozietateak inbertsioak egiterakoan jasaten duen BEZa berreskuratze aldera.

Ez dago jasota Mankomunitatearen ondasun eta eskubideen inventario baloratu eta eguneratutarik dagoenik, baina hura egitea da 2015eko ekitaldirako kudeaketa-planean ezarritako helburuetako bat.

Salestarren komentuaren higiezina erostea

Mankomunitateak erosketaren beharra justifikatu zuen zerbitzu guztiak egoitza bakarrean zentralizatzeko helburuarekin. Gaur egun, Mankomunitateak eta haren Sozietateak hiru higiezinetan ematen dituzte zerbitzuak, horietatik bi alokatuak, eta hiru aparkaleku dauzka bere 49 ibilgailuentzat: bata emakida moduan eta beste biak alokatuak.

Honako hauek izan dira 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan sortutako alokairu-gastuak:

	2011	2012	2013
Higiezinaren alokairua	191.373	190.845	193.495
Aparkalekua alokatzea (19 toki)	20.912	20.912	20.912
Garajearen mantentzea (30 toki)	12.071	13.618	6.465
Gastuak, guztira	224.356	225.375	220.872

Gastu horiek Iruñerriko Zerbitzuak, SAK jasaten ditu. Nabarmentzekoa da alokairu gastuak, 2014rako egindako negoziazioari esker, 65.000 euro jaitsi direla.

Ondoren, Mankomunitateak Salestarren higiezina eskuratzeko aurrera eramandako jarduketak azalduko ditugu, modu kronologikoan.

2009ko udan, Mankomunitateak Salestarren komentuko jabeekin kontaktatu zuen, hura zela-eta zeuzkaten planak ezagutze aldera. Komentuaren titularra den finantza-entitateak bere esku zeuzkan bi txosten igorri zizkion Mankomunitateari higiezinaren balorazioari buruz. Biak 2009koak ziren. Bere aldetik, Mankomunitateak, Sozietatearen bitartez, higiezin horren tasazio-txosten bat enkargatu zuen, non, 2010eko otsailean, 4,4 milioiko balioa ezarri baitzen, ehuneko 10eko marjinarekin. Balio hori oso urrun zegoen finantza-entitatearen balorazio-txostenetatik, horiek zazpi milioi euro ingurukoak baitziren.

Alde horiek ikusita, Iruñerriko Zerbitzuak, SAK balorazio-txostenen analisi bat enkargatu zuen, eta haren ondotik 4,4 milioiko baliotik 5,5eko baliora igo zen tasazioa, gutxi gorabehera.

2010eko apirilko txosten tekniko batean, Mankomunitateak bere zerbitzuak eraikin bakarrean zentralizatzeko beharra islatu zuen, eta xede hori izanen zuen higiezinak bete beharreko baldintza eta betekizun teknikoak ezarri zituen; besteak beste, Iruñean egotea, hirigunean egotea, iristen erraza izatea eta dimentsio jakin bat edukitzea.

2010eko maiatzeko txosten juridiko batean agerian jartzen da, beste alderdi batzuen artean, zeinen mugatua den merkatuko eskaintza, eta dauden aukerei buruzko azterlan bat egitea eskatzen da.

2010eko abuztuan, higiezin bat erosteko dauden aukerei buruzko txosten tekniko bat egiten da, eta lau baloratzen dira: Arantzadiko udal orubea, Erruki Etxearen lursailetan dagoen orube bat, Salestarren Komentua eta La Vasco Navarra eraikina. Ondorioztatzen da Salestarren aukera bikaina dela etorkizunean Mankomunitatearen egoitza izateko, ongi betetzen baititu honako baldintza hauek: irisgarritasunari buruzko adierazleak, hirigunean egotea, programari egokitzea eta ondarearen jasangarritasuna eta berreskuratzea.

2010eko azaroko beste txosten juridiko batean aipatzen da zuzeneko kontratazioa erabakitzeko bi baldintza betetzen zirela: bete beharrekoaren berezitasuna eta merkatuko eskaintza urria, eraikinak bete beharreko baldintzak direla eta: hirigunean egotea, irisgarritasuna eta tamaina (6.600 m² eraiki).

Ez zen egokitzen jo hiru eskaintza eskatzea, zeren eta aukerei buruzko 2010eko abuztuko txostenean ondorioztatzen baitzen aukera egoki bakarra Salestarrena deitutako eraikinarena zela.

Salestarren komentuaren higiezina zuzenean erosi zen, titularrak eskaintako 4.500.000 euroko prezioan. Prezio hori lotuta dago 4.050.000 euroko mailegu bat ituntzearekin, hain zuzen ere erosketaren ehuneko 90 egiten duena. Baldintza hori higiezinaren jabea den finantza-entitateak ezarri zuen. Honakoak dira maileguaren baldintzak: 15 urte, urteko euriborra gehi 1,95 puntuko interesa eta ehuneko 0,5eko irekitze-komisioa.

Mankomunitateak 2009ko ekitaldian aurrezki garbi negatiboa zuen; hori dela eta, Foru Administrazioari mailegua ituntzeko baimena eskatu zion, eta lortu ere egin zuen. Diruzaintza-plan bat aurkeztu zuen, non 2010-2015 eperako aurreikusitako kutxa-fluxuak jasotzen baitziren: aktibo higiezin berekien salmenta eta Salestarren erosketakoak eta erosketa horri lotutako mailegua.

Mankomunitateko Batzar Orokorrak 2010eko abenduaren 16an gehiengo osoz erabaki zuen higiezinaren erosketa onestea, 4.500.000 euroko prezioan, eta bera 4.050.000 euroko mailegu baten bidez finantzatzea.

Honako hauek izan dira higiezina erosi eta mantentzeko kostuak:

	2011	2012	2013
Maileguen amortizazioa	209.347	209.831	239.559
Maileguaren interesak	138.346	148.619	88.286
Mantentze-kostuak	15.318	1.941	5.514
Salestarren eraikinaren kostuak	363.011	360.391	333.359

Mankomunitateak jo du eraikinaren zaharberitze-lanen kostua 13,2 milioi eurokoa izanen dela, eta honako epe hauek aurreikusi ditu:

	Aurreikusitako zenbatekoa	Aurreikusitako epea
Proiektua eta obra-zuzendaritza	1.337.500	2011-2012
Eraikina barrutik eraistea	400.000	2012ko amaiera
Obraren exekuzioa	11.480.000	2013-2014
Guztira	13.217.500	

Obra horietarako aurreikusitako finantzaketa Mankomunitatearen jabetzako aktibo higiezinaren besterentzean oinarritzen da; esate baterako, 2.736.728 euro egiten duten lursail eta hirigintza-eskubideak eta egoitza instituzionala zein 8.361.328 euroan tasatutako bulegoak.

Epe-baldintzak ez dira bete, eta geratuta daude eraikinaren zaharberitzearekin lotutako jarduketak guztiak.

Gaur egun, Mankomunitateak ez du higiezina atxiki, eta ez dio Sozietateari mailegua eskualdatu, zaharberitzeaz eta mantentzeaz bera ardura dadin. Hori egiten ez den bitartean, maileguaren finantza-zama, Mankomunitatearen kargura dena, Sozietatearen ekarpen baten bidez finantzatzen da.

V.2.5. Kontratazio administratiboa

Honako kontratu hauen esleipena eta betetzea fiskalizatu dira:

Esleipen-urtea	Kontratua	Helburua	Prozedura	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Onartutako lizitatuak kopurua	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipen-baja
2013	Hornidura	Txartelen hornidurarako esparru-akordioa	Irekia Eskaintzarik onena	200.000	6		
2012	Hornidura	Taxi-tarifa berrien diseinu grafikoa	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	6.000		2.974	
2011	Laguntza	2011-2013 epeko auditoria	Irekia Preziorik merkeena	98.908,8	6	49.454,4	% 50
2012	Laguntza	Eskualdeko hiri garraioari buruzko inkesta eta bezero anonimoa (2012)	Negoziatua, Europar Batasunean publizitaterik egin gabea	26.900	3	20.175	% 25
2013	Laguntza	Mugikortasunari buruzko inkesta	Irekia, eskaintza onenarentzat	157.500	6	103.950	% 34

Lagin honek 2011tik 2013ra esleitutako hornidura-kontratu guztien ehuneko sei erakusten du, bai eta epe horretan esleitutako laguntza-kontratuen ehuneko 37 ere.

Oro har, kontratazio-espeditarean izapidetzean, esleipena eta obraren exekuzioa Kontratu Publikoari buruzko Foru Legearen arabera izapidetu dira.

Aztertutako gastuak justifikatuta eta kasuko fakturretan oinarrituta daude, onartuta eta fiskalizatuta daude eta zuzen kontabilizatu dira.

Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera, kontratua arautzeko baldintzetan besterik adierazi ezean, eskaintza bat baxuegiztat jo ahalko da baldin eta kontratuaren balio zenbatetsia baino ehuneko 30 txikiagoa bada. Esleitutako bi laguntza-kontratuetan, kontratuen zenbatetsitako balioaren azpitik dauden 50 eta 34 puntuko bajekin esleituak, ez zen gainditu kontratua arautzen duen orrian finkatutako portzentajea, eskaintza baxuegia dela jotzeko.

Taxi tarifa berrien diseinu grafikoaren hornidura-kontratuan, 15.000 euroko balio zenbatetsitik beherakoa baita, BEZik gabe, Kontratuei buruzko Foru Legearen arabera exijitzekoak diren baldintza bakarrak alde aurretiko kreditu-erreserba eta faktura izan ziren.

Esparru-akordioaren bitartez, hiru enpresa hautatu ziren eskualdeko hiri-garraiorako txartelen hornidurarako, hiru urteko eperako. 2013an, esparru-akordio horri jarraituz, 28.415 euro egin zuten txartel-eskariak izan ziren.

Eskualdeko hiri-garraioari eta bezero anonimoari buruzko asebetetze inkesta bat egiteko laguntza kontratuan, ez zen kontraturik egin, prestazio horri buruzko baldintza arautzaileetan ezarritakoaz bestera, eta kontratazio hori, gainera, ez zitzaion jakinarazi Kontratazio Publikoaren Batzarrari.

V.3. IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, SA SOZIJETATEA

V.3.1. Egoera ekonomikoa

Ondoren Sozietatearen 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietako adierazle batzuk emanen ditugu.

	2011	2012	2013
Negozio-zifra	58.024.914	58.629.104	59.773.063
Ekitaldiko emaitza	3.133.340	5.127.902	3.565.737
Maniobra-funtsa	14.784.282	23.821.381	28.729.578
Cash flowa	11.390.771	12.369.504	10.420.260

2013ko ekitaldiko negozio-zifra 59,77 milioi eurokoa izan zen, eta haren ehuneko 49 hondakinen zerbitzuari eta ehuneko 45 uraren ziklo integralaren zerbitzuari dagokie.

2013ko ekitaldiaren emaitza 3,57 milioi eurokoa izan zen, eta hornidura-zerbitzuan eta hidroelektrizatearen salmentan sortu zen.

Hondakinen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuak 264.080 euroko defizita izan zuen, eta ibai-parkeak, berriz, 295.043 eurokoa.

Sozietatearen 2012ko eta 2013ko kudeaketari buruzko txostenean, nabarmentzekoa da Sozietateak bere funtzionamendu-gastuak behar bezala estaliko dituzten diru-sarrerak arruntak sortzeko daukan gaitasuna; "horri finantza-zama nuluari gehituz gero, etorkizunean proiektuak eta inbertsioak finantzatzeko maniobra-tarte nabarmena ateratzen da".

Sozietateak 3.158.817 euroko ustiaketa-emaitza sortu zuen, eta salmentengatik eta zerbitzu-prestazioengatik diru-sarrerak jaso zituen, zerbitzuen funtzionamendu-gastuak estaltzerainokoak. Hala eta guztiz ere, ez ziren nahikoak izan ekitaldian zuzkitutako ondasun-amortizazioaren guztizkoa -14,91 milioi euro- estaltzeko. Kopuru hori aurreko ekitalditik emaitzara aldatutako kapital-leko diru-laguntzekin -5,17 milioi- finantzatu ziren.

Horrenbestez, Kontabilitate Plan Orokorrak ezartzen duen bezala, emaitzari egotzitako kapital-leko-diru-laguntza kontuan hartzen ez baditugu, sozietateak emaitza negatiboa lortuko luke, zeren eta ez baitu behar adina diru-sarrera arruntik ondasunen amortizazioaren urteko zuzkidura finantzatzeko.

Sozietatearen estatutuek ezartzen dute etekinak funtsak eratzera bideratuko direla, bai borondatezko erreserbako funtsak, bai gehikuntzetarako funtsak. Ekitaldi bakoitzean lortutako emaitzak borondatezko erreserbei aplikatu zaizkie.

2013ko ekitaldian Sozietateak zeukan maniobra-funtsa 28,73 milioi eurokoa da, 2012koa baino ehuneko 21 handiagoa. Ratio horrek kapital iraunkorrekin finantzatutako aktibo arrunten zenbatekoa adierazten du.

Bestalde, cash flowa edo sortutako efektiboa 10,42 eurokoa izan zen 2013an, 2012ko ekitaldiko baino ehuneko 16 txikiagoa. Horrenbestez, sozietateak auto-finantzaketarako gaitasunik ba-zeukan.

V.3.2. Langileak

a) Iruñerriko Zerbitzuak, SAren 2013. urteko langile gastuak 21.054.104 euro egin zuten, eta ustiaketa-gastu guztien ehuneko 29 egiten dute. Ehuneko bi gehiago izan ziren 2012an aitortutakoak baino.

Sozietateak, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua aplikatuz, 2012ko abenduko aparteko soldata kendu zuen: 851.185 euro. Zenbateko hori 2012ko ekitaldian aitortu zen, abenduaren 28ko 28/2012 Foru Legearen babesean; horren bidez, aldi baterako osagarri pertsonal bat sortu zen erosahaltenaren galera berdintzeko, eta 2013an ordaindu zen.

Honako hauek dira langile-gastuak osatzen dituzten kontzeptuak:

	Gastuak (2012)	Gastuak (2013)	Aldea
Soldata, lansariak eta antzekoak	15.856.295	16.006.794	% 1
Zama sozialak, guztira	4.806.155	4.881.615	% 2
Pentsio-funtsen zuzkidura	0	165.695	
Langile-gastuak, guztira	20.662.450	21.054.104	% 2

b) 2013an, hitzarmen kolektiboak 134 lanpostu aurreikusten zituen Iruñerriko Zerbitzuak, SAN. Horietatik 49 libreki izendatu edo kargutik kentzekoak ziren, eta arloko zuzendari, buru eta ardura-dunei zegozkien. Erakundeko pertsonak betetzen dituzte lanpostu horiek, posturako pertsona ego-giak badaude. Gainerako 85 lanpostuak tituludun, teknikari profesional eta adituei dagozkie.

Iruñerriko Zerbitzuak SAk 2013an 452 pertsona enplegatu zituen; honako lanbide-taldetan multzoka daitezke:

Lanbide taldeak	2012	2013
Espezialistak	100	99
Profesionalak	193	197
Teknikariak	93	88
Tituludunak edo parekoak	68	68
Langileak, guztira	454	452
Langile finkoak	414	409
Aldi baterako langileak	40	43
Langileak, guztira	454	452

2013. urtean, langileen ehuneko 90,5 plantillako langile finkoak ziren, eta Sozietateko 452 langileetatik 72k izendapen askeko lanpostuak betetzen zituzten –langile guztien ehuneko 16 egiten dute–.

c) Honako hauek izan ziren 2011-2013 aldirako onetsitako langile-deialdiak:

Urtea	Lanpostu kopurua	Kontratu mota
2011	2	Mugagabea
	4	Aldi baterakoa
2012	8	Aldi baterakoa
2013	1	Aldi baterakoa

2013ko aldi baterako kontratazioa arkitekto postuari dagokio. Egiaztatu dugu kontratazio horretan jarraitutako prozedurak modu arrazoizkoan bermatzen zuela publizitate, merezimendu eta gaitasuna printzipioen betetzea.

d) Sozietateko langileek 11 lantokitan egiten dute lan, honako jarduera hauetan:

Jarduera	Lantokia	2012	2013
Zerbitzu zentral eta instituzionalak	Iruña	158	158
Bezeroarentzako arreta-zerbitzua	Iruña	24	27
Edateko uraren tratamendua	Urtasun, Egillor, Tebas	48	48
Ur-sareen eta -instalazioen mantentzea	Iruña	85	84
Hondakin uren arazketa	Aratzuri	53	50
Hiri-hondakinen tratamendua	Gongora	80	78
Etxeko hondakin berezien bilketa	Iruña	6	7
Guztira		454	452

Zerbitzu zentral eta instituzionalak eta bezeroari arreta emateko zerbitzua Iruñean dauden hiru bulegotan ematen dira.

Langileen ehuneko 43 arlo teknikoari eta uraren ziklo integralari atxikita daude; ehuneko 21, berri, hondakinen arloari, eta ehuneko 20, azkenik, baliabideen arloari.

Sozietateak bere langileekin dauzkan lan-harremanak 2012ko uztailaren 23an 2010-2014 aldirako sinatutako hitzarmen kolektiboan arautu ziren. Hitzarmen hori urtebeterako luzatu ahal da 2015eko abenduaren 31ra arte.

Hitzarmenak ezartzen du 2013ko urtarrilean 2009ko ordainsarien aplikazioaren balioak gaurkotuko direla, Nafarroaren 2012ko KPI errealearen arabera. Sozietateak ez zuen ordainsarien berrikuspen hori aplikatu argudiatuz ezen, 2013rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legari jarraituz, sektore publikoaren zerbitzuan ari diren langileek ezin izanen dutela inolako igoerarik izan 2012ko abenduaren 31n indarrean zeuden taulen aldera. Langile Komisioak sindikatu-atalak, 2014an demanda bat aurkeztu zuen "Gatazkan Kolektiboan" ez-betetze hori zela eta. Demanda horri LAB sindikatua eta Enpresa Batzordea ere atxiki zitzaizkion. Urte bereko abenduaren 18an, ezetsi egin zen demanda.

Iruñerriko Zerbitzuak, SAko langileentzat ezarritako urteko lanaldia 1.592 ordukoa da.

e) Langileen ordainsari-maila

Sozietateko langileen ordainsariak honako kontzeptu hauek osatuak dira:

e.1) Lanpostuen balorazioari buruzko ordainsaria: lau talde profesionaletako bakoitzaren lanpostuak baloratzen dira, 1990ean onetsitako sistema baten arabera, eskumena, arazoaren konponbidea eta erantzukizuna bezalako alderdiak kontuan hartuz. Ordainsariak kalkulatzeko ezarritako formula esleitutako lanpostuen arabera da.

Ondoren erakusten dugu, lanbide-kategoria bakoitzeko, zenbat lanpostu sartu diren lanpostuen balorazio-tarte desberdinetan:

Lanbide-kategoria		<200 puntu	201- 400 puntu	401- 600 puntu	<600 puntu	Lanpostuak, guztira
Tituluduna	Libreki izendatu eta kargutik kentzekoak		2	10	2	14
	Gainerako lanpostuak		23			23
Teknikaria	Libreki izendatu eta kargutik kentzekoak	10	4			4
	Gainerako lanpostuak		12			22
Tituluduna/teknikaria (1)	Libreki izendatu eta kargutik kentzekoak		22	2		24
Profesionala/espezialista	Libreki izendatu eta kargutik kentzekoak	1	6			7
Profesionala	Gainerako lanpostuak	28	1			29
Espesialistak	Gainerako lanpostuak	11				11
Lanpostuak, guztira	Izendapen librea	1	34	12	2	49
	Gainerako lanpostuak	49	36	0	0	85

(1) Izendapen libreko lanpostu batzuk bi lanbide-kategoriatakoak izan daitezke.

Ikus daitekeen bezala, libreki izendatzekoak edo kargutik kentzekoak diren lanpostuek 400 puntu baino gehiago dauzkate.

Ondoren, lanpostuen gehieneko ordainsariaren eta gutxieneko ordainsariaren arteko tarteak aurkezten dugu, 2013. urtekoa:

	<200 puntu	201-400 puntu	401-600 puntu	<600 puntu
Libreki izendatu eta kargutik kentzekoak:				
Gutxieneko puntuak	160	204	421	611
Gehieneko puntuak	160	383	571	652
Gutxieneko soldata (eurotan)	29.180	33.264	61.505	81.814
Gehieneko soldata (eurotan)	29.180	56.105	77.707	85.726
Gainerako lanpostuak				
Gutxieneko puntuak	95	204		
Gehieneko puntuak	194	366		
Gutxieneko soldata (eurotan)	23.372	33.264		
Gehieneko soldata (eurotan)	32.218	53.936		

Lanpostuen balorazioaren kontzeptuaren arabera urteko ordainsaria 29.180 euro eta 85.726 euro artekoa da libreki izendatzekoak edo kargutik kentzekoak diren lanpostuetan eta 23.372 eta 53.936 euroko artekoa, berriz, gainerako lanpostuetan.

Tarte bakoitzaren gutxieneko eta gehieneko soldata kalkulatzeko, kontuan hartu dira puntuazio txikiena eta handiena duten lanpostuak.

e.2) Lan-baldintzen arabera urteko ordainsaria, lanpostuaren honako alderdi hauen arabera: osasungarritasunik eza, ahalegin fisikoa, ahalegin psikologikoa, eguraldia, arriskua, zarata eta gidatzea.

134 lanpostuetatik 53tan jasotzen da ordainsari-kontzeptu horiek; horietatik, 13 izendapen librekoak dira eta 40, berriz, gainerako lanpostuei dagozkie. Lan-baldintzen arabera urteko ordainsaria

bat esleituta daukaten 53 lanpostuetatik, 34k lanpostua dela-eta 200 puntutik beherako balorazioa dutenak dira.

Lan-baldintzen arabera puntuazioa 1 puntutik 22 puntura bitartekoa da, eta puntuaren balio unitarioa, 2013tik, 118,208374 eurokoa da. Horrenbestez, ordainsaria urtean 118,21 eta 2.600,58 euro bitartekoa da.

Hitzarmenak lanpostu bakoitzari esleitutako puntuak jasotzen ditu, 1. eta 2. ataletan deskribatutako bi balorazio horiek kontuan hartuta.

Egiatzatu dugu ezen, nominen lagin bat hartuta, lanpostuari hitzarmenean aurreikusitako puntuazioa aplikatzen zaiola, dagokion balorazioaren arabera.

e.3) Antzintasuna: 2013an, 108,1 euro zerbitzu-urte bakoitzeko.

e.4) Plusak:

Plusak	2013ko zenbatekoa	
Ihesak	42,25	Ihes bakoitzeko
Gauekoa	16,04	Gaueko lanaldiarena
Jaiegunarena	17,42	Jai egun osoarena
Berezia		

Plus bereziak honako kontzeptu hauek jasotzen digu: erretena; urteko orduen itxieraren arabera ordainsari doikuntzak; balorazio desberdina duten lanpostuen aldi baterako edo noizbehinka betetzean gertatzen diren ordainsari aldeak; lanaldiaz besteko ordutegi batean egiteko programatzen diren izaera arrunteko edo bereziko lan edo jardueren konpentsazioa; eta gerta daitezkeen bestelako egoera bereziak.

e.5) Kilometrajea: 0,30 euro kilometro bakoitzeko.

Aurreko ordainsari-kontzeptuez gainera, Sozietateko langileek eskubidea dute, besteak beste, honako laguntza sozialak jasotzeko:

- Aldi baterako ezgaitasunerako osagarria: enpresak guztizko ordainsariaren ehuneko 100a osatzerainoko zenbatekoa ordaintzen du.

- Erretiro-plana, non erretiro partzialerako eskubidea ezartzen baita, itundutako estipulazioen arabera: 2013ko martxotik 2018ko abendura daukate indarra. Planaren indarraldiaren barruan 64 urte betetzen dituzten langileek erretiroa hartu ahalko dute eskubide pasiboaren ehuneko 100 Gize Segurantzaren kargura ordainduta.

- Hitzarmenean jasotako kalte-ordaineko osagarria. 2013ko urtarriletik aplikatzen da, eta honako kontzeptu hauek osatzen dute:

Uraren konpentsazioa: Urteko 137,33 euro langile bakoitzeko.

Lanerako jantziengatik konpentsazioa: 372,67 euro langile bakoitzeko. Kopurua metagarria da.

Enpresak urtero Gizarte Aurreikuspeneko Funtsari egiten dion ekarpenaren konpentsazioa, horren barne dela Aurrerabide Pertsonalerako Laguntza: Urteko 90 euro langile bakoitzeko.

Aseguruak: bizitza-asegurua pentsio-planari buruzko akordioaren barruan dagoela jotzen da. Istripu-aseguruari eusten zaio.

f) Administrazio-organotako ordainsariak

Sozietateko administrazio-organoen ordainsariak 30.970 eurokoak izan ziren 2013an. Aurreko urtean, berriz, 32.723 eurokoak izan ziren.

2013ko abenduaren 18an, Sozietateko Batzorde Nagusiak erabaki zuen Administrazio Kontseiluaren bilkuretara joateagatik saria 175 eurokoa izanen dela. Zenbateko hori Nafarroako KPIaren arabera eguneratuko da.

Iruñerriko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2008ko urriaren 23an, erabaki zuen 2009rako izoztea Mankomunitatearen eta Iruñerriko Zerbitzuak, SAren organo kolegiatuen bilkuretarako joateagatik ordaintzen diren dietak. 2010eko azaroaren 5ean, Iruñerriko Zerbitzuak, SAren Batzorde Nagusiak erabaki zuen, ekainaren 1etik aurrerako eraginekin, organo kolegiatuen saioetara joateko dietak ehuneko 5 jaistea.

Akordio horietatik guztietatik, 194,78 euroko kopurua ateratzen da 2012 eta 2013ko urteetan Administrazio Kontseiluko saioetara joateagatik. PFEZa dela-eta ehuneko 35eko atxikipena egiten da.

Administrazio Kontseiluko kide batek ezezkoa eman zion dietak kobratzeari.

Dietak jaso dituztenen lagin bat hartuta, egiaztatu dugu egiazki bertaratu egin zirela, ordaindutako bilkuraren aktan jasotakoaren arabera.

Pentsio-plana

Sozietatearen hitzarmen indardunean, ez da aipatzen Iruñerriko Zerbitzuak, SAko langileak pentsio-planeari sartzen direla.

Sozietateak bere langileekin pentsio-plan misto bat ezarrita dauka, onuradunek jaso beharreko kopuruaren araberrako prestazio jakin bat duena eta Sozietatearentzat ekarpen jakin bat ezartzen duena, sustatzaileak ordaindu beharreko kopuruari dagokionez. 2012ko ekainaren 8ra arte, pentsio-plana finkatutako prestazioen modalitatean sartzen zen.

Pentsio-planeko partaideek Iruñerriko Zerbitzuak, SAko langileak izan behar dute, gutxienez ere bi urteko antzinatasunarekin, erretiroaren kontingentziaren estaldurarako eskubidea izateko. Ezgaitasun- eta heriotza-kontingentziak uneoro daude estalita.

Pentsio-plana, 1999ko ekainean onetsitako erregelamendu batean arautua, banakako kapitalizazio sistema finantzario eta aktuarial batekin gauzatu zen, eta planeko partaide eta onuradunen titularitateko funts bati atxiki zitzaion. Funtsen kudeaketarako entitate batek kudeatu, administratu eta zaindu zuen funtsa.

2012ko ekainean, Pentsio Planaren Kontrolerako Batzordeak erabaki zuen 1999an egindako pentsio-plana aldatzea. Batzordea 12 kidek osatzen dute; horietatik sei entitate sustatzailearen ordezkariak dira, bost partaideen ordezkariak eta bat onuradunen ordezkaria.

Prestazio-sistema berriaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

2012ko ekainera arte, Iruñerriko Zerbitzuak SAK pentsio-planari egindako ekarpenekin finantzatzen zen, prestazioez gainera, gutxienezko kaudimen-tarte bat eratzea. 2012ko ekainaren 8tik aurrera, bai partaideen kolektiboko, bai prestazioak bizi arteko errenta gisa jasotzen jarraitzen duten onuradunen kolektiboko erretiro-, ezgaitasun eta heriotza-kontingentziak kanpoan kontratatutako polizen bitartez aseguratzen dira.

Aseguratzeko eragiketan, ehuneko 6,07ko interes-tasa lortu zen, pentsio-planerako adostutako ehuneko lauko tasatik gorakoa.

Kaudimen-tarte bat aseguratze-eragiketa formalizatzerakoan arriskuen hornidura matematiko bat eratzeko legezko betebeharretik sortutako zenbatekoa bideratuko da erretiro-prestazioaren etorkizuneko zerbitzuak bermatzera.

2012ko ekainetik aurrera, ekarpenaren zenbatekoa mugatzen da aurreko urteko urriaren 31n planeari sartutako partaideen pentsioa sor dezakeen soldataren ehuneko laura (lanpostuaren balorazioko lansari-kontzeptuei eta lan eta antzinatasun baldintzei dagokie).

Iruñerriko Zerbitzuak, SAK 2007-2013 aldiko urte bakoitzean honako ekarpen hauek egin ditu pentsio-planerako:

Urtea	Ekarpena	Ordaindutako prestazioa
2007	754.470	
2008	1.196.338	
2009	1.346.981	
2010	1.193.488	633.693
2011	1.298.063	1.006.882
2012	0	826.559
2013	166.695	590.319

2012an, Iruñerriko Zerbitzuak, SAK ez zuen ekarpenik egin pentsio-planerako, Defizit publikoa zuzentzeko, aurrekontu, zerga eta finantza arloetan presako neurriak onesteari buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretua betetze aldera; izan ere, arau hori indarrean zegoen 2012ko urtarrilaren 1etik eta erretiroaren kontingentziaren estaldura jasotzen duten langileen pentsio-planerarako ekarpenak egiteko debekua ezartzen zien sektore publikoko administrazio, entitate eta sozietateei.

2013rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 17/2012 Legeak aipatutako ekarpenak egiteko debekua luzatu zuen, soilik erretiroaren kontingentziaren estaldurara mugatuak; halere, ezarri zuen aseguru kolektiboko kontratuak egin zitezkeela, erretiroaz besteko kontingentzien estaldurarako.

2013. urtean, Sozietateak 165.695 euroko ekarpena egin zuen pentsio-planerako: arrisku-kontingentzien –ez erretiroaren kontingentziaren– finantzaketari zegokion. Ekitaldi horretan 590.319 euroko prestazioak ordaindu dira pentsio-planetik; 2012an, berriz, 826.559 eurokoak izan ziren.

2013an, Sozietateak pentsio-planeko gaindikinetatik 177.904 euro bideratu zituen erretiro-prestazioaren ehuneko 100a estaltzera.

2012ko urtarrilaren 8ra arte, partaideak honako bi kolektibo hauetan sartzen ziren:

A kolektiboa: enpresan, langile finko gisa, 1985eko urtarrilaren 1a baino lehen sartutakoak.

B kolektiboa: gainerako partaideak.

A eta B kolektiboetako partaideek borondatezko ekarpenak egin ahal zituzten, lege-mugen barruan. Partaideen eskubide hori 2012ko ekainaren 8tik kendu zen.

2012ko ekainaren 8tik aurrera, hiru kolektibo artikulatu ziren:

1. kolektiboa: 2012ko ekainaren 8an, data hori barne, pentsio-planari atxikitako partaideak: horien konpromisoak heldu dira Iruñerriko Zerbitzuak, SAren pentsio-planaren aldaketaren aurretiko sistematik.

2. kolektiboa: 1. kolektiboan sartzen ez direnak.

3. kolektiboa: 2012ko ekainaren 8an planaren prestazioak jasotzen ari ziren onuradunak.

Onuradunek ordainketa bakarrean jasoko dituzten erretiro-prestazioak, 2012ko ekainean pentsio bihur daitekeen soldataren halako hainbestez finkatutakoak, 1. kolektibo osorako pentsio bihur daitekeen soldataren 1,5 halako izanena da, batez beste. Ehuneko 1,5eko batez besteko hori pentsio bihur daitekeen soldataren halako 1,3 eta 6,1 bitartekoa da, hurrengo taulan erakusten dugun bezala:

Adina	Soldata-tarteak				1. kolektiboa
	0-45.000	45.000-50.000	50.000 - 60.000	60.000-99.000	
0-35	1,4	1,4	-	-	1,4
35-40	1,4	1,6	-	1,5	1,4
40-45	1,4	1,5	1,4	1,5	1,4
45-50	1,4	1,7	1,3	1,3	1,4
50-55	1,4	2	1	1,3	1,4
55-60	1,3	3,1	3	-	1,8
60-70	1,3	3,7	3,3	6,1	1,7
	1,4	2,1	2	1,7	1,5

Erretiro-prestazioaren zenbatekoa 16.000 eta 450.000 euro artekoa izanen da. Hurrengo taulan erakusten dugu, adierazitako zenbatekoei dagokienez, zenbat partaidek hartuko dituzten:

Erretiroko prestazio zenbatetsia	Partaideen kopurua
16.000 eta 20.000 euro bitarte	9
20.000 eta 30.000 euro bitarte	42
30.000 eta 40.000 euro bitarte	89
40.000 eta 50.000 euro bitarte	163
50.000 eta 60.000 euro bitarte	69
60.000 eta 70.000 euro bitarte	26
70.000 eta 80.000 euro bitarte	19
80.000 eta 90.000 euro bitarte	9
90.000 eta 150.000 euro bitarte	10
150.000 baino gehiago	13
Partaideak, guztira	449

2. kolektiboak pentsio bihur daitekeen soldataren halako 0,5 eta 1 bitarte jasoko du, partaidearen antzintasuna zein den, 10 urtetik beherakoa edo 30 urtetik gorakoa, hurrenez hurren.

Ondoren, batez besteko estaldurak alderatzen ditugu, pentsio bihur daitekeen soldataren halako hainbestez neurtuak, ezgaitasun- eta heriotza-kontingentzietakoak, 2012ko ekainaren 8a baino lehen eta data horretatik aurrera.

Lanerako ezintasun iraunkor osoaren betez besteko estaldura:

Adina	2012-06-08tik aurrera	2012-06-08tik aurrera	
		1. kolektiboa	2. kolektiboa
0-35	7,0	3,0	3,0
35-40	6,2	2,8	2,8
40-45	5,8	2,6	2,6
45-50	5,0	2,4	2,4
50-55	4,2	2,2	2,2
55-60	3,7	2,0	2,0
60-70	3,4	2,0	2,0
Batez bestekoa	5,1	2,4	2,4

Lanerako ezintasun iraunkor osoaren betez besteko estaldura:

		Soldata-tarteak				Batez bestekoa
		0-45.000	45.000-50.000	50.000-60.000	60.000-99.000	
2012ko ekainaren 8a baino lehen		0,9	3,7	5,6	8,8	1,5
2012ko ekainaren 8tik aurrera	1. kolektiboa	1,5	1,5	2	3,5	1,6
	2. kolektiboa	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5

Heriotzaren batez besteko estaldura:

	Soldata-tarteak				Batez bestekoa	
	0-45.000	45.000-50.000	50.000-60.000	60.000-99.000		
2012ko ekainaren 8a baino lehen	1,3	1,6	3,2	5,3	1,6	
2012ko ekainaren 8tik aurrera	1. kolektiboa	1,5	1,5	2	3,5	1,6
	2. kolektiboa	1,5	1,5	1,5	1,5	1,5

2013ko abenduaren 31n, pentsio-planaren ondarea 17.053.045 eurokoa zen, eta 2.909.449 euroko superabita zeukan –epe luzeko finantza-inbertsioen kontuan kontabilizatuak–. Superabit hori planeko ondarearen eta pentsio-konpromisoek sortutako betebeharren arteko aldeak sortu du.

Pentsio-plana honako kontu hauetan erregistratzen da:

	2011	2012	2013
Pentsio-planeko urteko zuzkiduraren gastua	1.298.063	0	165.695
Epe luzeko finantza-inbertsioak		2.988.978	2.901.927
Galera eta irabazi aktuarialengatiko erreserbak	185.015	2.972.610	2.795.240

Finantza-inbertsioen saldoaren eta balantzeko pasiboan bildutako erreserba aktuarialen arteko aldeak arrazoi du aktiboaren zergapetze-eragina eta 2012ko eta 2013ko superabita.

V.3.3. Ibilgetua

Iruñerriko Zerbitzuak, SAREN ibilgetu ez-finantzarioa 2011ko ekitalditik 2013ko ekitaldira:

	2011	2012	2013
Ibilgetu ukiezina	664.387	718.022	864.447
Emakidak	3.819.279	3.819.279	3.819.279
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak		375	375
Aplikazio informatikoak	2.337.103	2.786.855	2.959.211
Bidean diren aplikazio informatikoak	206.385	55.081	243.592
Balio gordina, guztira	6.362.768	6.661.590	7.022.457
Emakiden amortizazioak	3.789.688	3.814.739	3.819.279
Aplikazio informatikoen amortizazioa	1.908.693	2.128.829	2.338.730
Amortizazio metatuta, guztira	5.698.381	5.943.568	6.158.009
Ibilgetu materiala	132.999.118	135.258.148	127.467.535
Lursailak eta eraikinak	85.439.186	88.811.599	92.824.006
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetua	255.869.672	268.144.666	275.051.773
Bidean den ibilgetua eta aurrerakinak	5.521.024	6.324.956	844.320
Balio gordina, guztira	346.829.882	363.281.221	368.720.100
Eraikinen amortizazioa	47.330.269	51.171.257	55.132.386
Instalazio teknikoen amortizazioa eta bestelako ibilgetua	166.500.495	176.851.816	186.120.179
Amortizazio metatuta, guztira	213.830.764	228.023.073	241.252.565
Ondasun higiezinetakoa inbertsioak	277.378	291.220	0
Lursailak	277.378	291.220	0

Ibilgetu ez-finantzarioa, 2013ko abenduaren 31n, 375,74 milioi eurotan baloratuta dago, eta data horretan metatutako amortizazioa 247,41 milioi eurokoa da.

Ibilgetu materialean eta ez-materialean erregistratutako ondasun guztiak inbentario baloratu eta gaurkotu batean sartuta daude, eta haien gainean amortizatzen da. Halaber, 2013ko uztai-lean, Sozietateak arrisku industrialetarako aseguru-poliza bat kontratatu zuen, 119.781 eurokoa, non guztira 245,87 milioi euroko kapitala aseguratu baitzen.

Hala eta guztiz ere, ez daude ez kontabilizatuta, ez inbentariatuta, eta, gainera, ez dira amortizatzen, hirugarrenek eraikitako urbanizazio berrien hornidura- eta saneamendu-sareak, zeinak Mankomunitateak jasotzen dituen eta Sozietateari eskualdatzen dizkion.

Ondoren, ibilgetuko kontuetako batzuk aztertzen dira.

Emakidak.

Mankomunitateak 1998ko urtarrilaren 1ean eman zizkion emakiden erabilera-eskubidea Sozietateak dauka. Emakida horiek, 3.819.280 euroko kopuruan baloratuak, Mankomunitatean erregistratutako kontabilitate-balioaren arabera, guztiz amortizatuta daude 2013ko abenduaren 31n, emakidaren bizitza baino laburragoa den aldi batean. Honako hauei dagozkie:

Emakidak	Emakidaren bizitza	Kontabilitate-balioa	Sozietatean alta ematea	Amortizazio epea
Artetako iturburua	30	125.319	1984	29
Eugiko urtegia	40	255.084	1982	28
Arakil ibaia	10	9.406	1982	10
Imaz Anaien kaleko aparkalekuak	50	199.444	1990	20
Eugiko aprobetxamendu hidroelektrikoa	70	2.683.669	1990	20
Urtasungo aprobetxamendu hidroelektrikoa	70	546.358	1992	20
Emakidak, guztira		3.819.280		

Lursailak eta eraikinak.

2013ko abenduaren 31n, 92.824.006 euroko kontabilitate-balioa dute. Hona xehakatzeara:

	2011
Lursailak	26.429.779
Eraikinak	66.394.227
Guztira	92.824.006

Eraikinen artean, Aratzuriko araztegia dago, 23,4 milioi eurokoa, eta 15,24 milioi euro egiten duten zenbait biltegi.

Lursailetan, Gongorako zabortegia nabarmendu beharra dago, 22,36 milioi eurekin. 12,63 milioi eurotan amortizatuta dago.

Deuseztatzeko eta lehengoratzeko hornidura 24.589.527 eurokoa da 2013ko abenduaren 31n, eta haren kalkulua zabortegia ixteko kostuei eta ixtearen ondorengo mantentzeari buruzko 2008ko azterlan batean oinarritzen da –2011n berrikusi zen–. Gaur egun KPIaren arabera gaurkotzen da.

Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetua.

2013ko abenduaren 31n 275,05 milioi euroko saldoa dauka. Horren barruan, 214,23 milioi instalazio teknikoek dagozkie, nagusiki tokiko sareei eta hornidura-sareei.

Inbertsioak eta ibilgetua.

Sozietate publikoak urtero jarduketetarako, inbertsioetarako eta finantzaketarako programa bat egiten du, non inbertsioak, haien finantzabideak eta ekitaldi bakoitzerako aurreikusitako jarduketaren oroitidazkia jasotzen baita. Ez dira adierazten bilatzen diren helburuak eta sortzea espero diren errentak. Inbertsioen urteko programak sozietatearen inbertsioko eta finantzaketako lau-urteko planei erantzuten die.

Ez dago jasota jarduketaren, inbertsioen eta finantzaketaren urteko programaren exekuzioaren jarraipenik egiten denik.

Ondoren alderatzen ditugu 2011, 2012 eta 2013ko ekitaldietan aurreikusitako eta gauzatutako kapitaleko inbertsioak eta diru-laguntzak.

	2011	2012	2013	Guztira
Aurreikusitako inbertsioak	34.889.513	31.070.156	22.758.218	88.717.887
Egindako inbertsioak	13.890.429 ⁽¹⁾	18.601.773	7.536.581	34.578.243
Inbertsioen betetzea (%)	40	60	33	39
Aurreikusitako diru-laguntzak	17.728.603	16.727.091	10.751.379	45.207.073
Jasotako diru-laguntzak	6.485.077	14.376.061	2.587.764	23.448.902

(1) Deuseztatze gastuei dagokien 5,45 milioiko kopurua biltzen du.

2011tik 2013ra bitarteko aldirian, Sozietateak 34,58 milioi euro egiten duten inbertsioak egin zituen: aurreikusitakoaren ehuneko 39 izan ziren. Inbertsio nagusiak instalazio hauei dagozkie:

	Inbertsioak (2011-2013)
Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea	9.333.461
Kolektoreak, araztegiak eta hobi septikoak	6.763.474
Tokiko sareak	5.368.001
Plantak, biltegiak eta hornidura-sareak	4.854.693

V.3.4. Kontratazio administratiboa

Honako kontratu hauen esleipena eta betetzea fiskalizatu dira:

Esleipen-urtea	Kontratua	Helburua	Lizitazio-prezioa, BEZik gabe	Kontratuko epea	Onartutako lizitatuak kopurua	Esleipen-prezioa, BEZik gabe	Esleipenaren baja
2013	Laguntza	Inausketa- eta lorezaintza-laneko bilketa	700.000	2 urte	6	599.600	% 14
2013	Laguntza	Zentroak garbitzea	464.000	Urte 1	14	387.440	16,5
2013	Obra	Hornidura-sareak	996.697		6	725.595	% 27
2013	Obra	Gongorako hondakinen tratamendurako zentroa	1.681.416		6	1.176.991	% 30
2013	Hornidura	Ur-kontagailuak	1.627.945	4 urte	2	1.246.138	% 23
2013	Hornidura	Edukiontzia	493.000		2	492.936	(1)
2012	Laguntza	Lohiak balioan jartzea	2.181.302	4 urte	1	2.010.270	% 8
2012	Laguntza	Fakturak inprimatu, manipulatu eta eskuratzea	653.960	4 urte	1	644.022	% 1,5
2012	Obra	Energia sorkuntza zabaltzea	783.601		4	663.710	% 15
2012	Obra	Gongorako hiri-hondakinen tratamendurako zentroa	2.391.695		8	1.677.319	% 29,87
2012	Hornidura	Polielekroligo kationikoa	1.150.800	4 urte	3	997.800	% 13
2012	Hornidura	Balofasto ofitikoa	451.000	4 urte	1	407.000	% 10
2011	Laguntza	Paper eta kartoiaren salmenta	8.200.000	4 urte	3	(2)	
2011	Laguntza	Estolda-zuloen garbiketa	3.000.000	10 urte	3	2.103.000	% 29,9
2011	Obra	Konposta egiteko planta	2.920.073		10	2.529.788	% 13
2011	Obra	Girgilaoko hornikuntza	1.193.248		7	1.007.578	% 15,5
2011	Hornidura	Kogenerazioko motorrak	3.011.600	15 urte	3	2.854.280	% 5
2011	Hornidura	Edukiontzia	660.000		2	659.991	(3)

(1) Nahiz eta esleipen prezioa lizitazio-prezioaren berdina den, unitate bakoitzeko ehuneko bederatziko batez besteko bajarekin esleitu zen.

(2) Eskainitako prezioa bildutako kopuruaren arabera, argitaratzen den paperaren prezioaren arabera eta enpresak eskainitako diferentzialaren arabera.

(3) Nahiz eta esleipen prezioa lizitazio-prezioaren berdina den, unitate bakoitzeko ehuneko 25eko batez besteko bajarekin esleitu zen.

Aztertutako kontratuak Sozietateak 2011, 2012 eta 2013. urteetan esleitutako kontratu guztien ehuneko 50, 36 eta 39 egiten dute, hurrenez hurren.

Aztertutako laginean sartzen diren kontratuak prozedura irekiaz esleitu ziren, eta haietan guztietan eskaintza aldekoenean oinarritutako esleipen-irizpideari jarraitu zitzaion, salbu eta fakturen inprimaketarako, manipulaziorako eta entregarako laguntza-kontratuan eta balasto ofitikoaren hornidura-kontratuan; izan ere, bietan, 2012an, esleipen-irizpidea eskainitako prezioa izan zen bete-betean.

Aztertutako kontratuen prestaketa eta esleipena Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko xedapenen eta Sozietateak onetsitako kontratazio-arauen arabera izapidetu ziren.

Halaber, kontratatutako prestazioen exekuzio zuzena kontrolatzeko prozedurak ezarri dira, kontratuaren ez-betetzeak egiaztatzen direnean penalizazioak ezarrita.

Gastuak justifikatuta eta fakturatuta daude kontratatutako prezioen arabera, eta, oro har, zuzen kontabilizatuta daude.

Kontratazio prozeduren kudeaketa elektronikoa ezarri da.

207.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten laguntza- eta hornidura kontratu guztiak Euro-par Batasuneko Egunkarian eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu dira, baina azken argitalpen horretan ez zen aipatzen Euro-par Batasuneko Egunkari Ofizialera zein egunetan igorri zen.

Berrikusitako kontratuetak bakarrean ere ez da txosten juridikorik eta kontratazio-organoak espedientea dela-eta emandako onespenerik. Dokumentu horiek nahitaezkoak ez badira ere, gomendagarria da alde aurretik txosten juridikoa edukitzea kontratuak arautzen dituzten baldintzak onesteko, bai eta kontratatzeko gaitasuna duen enteko organoak espedientea lizitazio publikoa baino lehen onestea edo baimentzea ere.

Zenbait espedientetan ez da beharizanezi buruzko txostenik jasotzen.

Araturiko Hondakin-uren Araztegiko arazte-prozesuan sortutako lohiei eta lohi berdeei balioa emateko kontratuan, esleitutako eskaintzak, aurkeztutako bakarra denak, 19 puntu jaso zituen balorazio teknikoan. Klausulen orriak ezartzen zuen automatikoki baztertuko zirela balorazio teknikoan gutxienez ere 20 puntu lortzen ez zituzten proposamenak.

Araturiko hondakin-uren araztegirako kogenerazioko bi motore hornitzeko eta mantentzeko kontratuan, ez da gauzatu kontratuaren behin betiko jasotzea, behin-behineko jasotzea egin eta urtebeteko epean egiteko finkatuta zegoena; kontratua 2012ko irailean jaso zein behin-behinekoz.

V.3.5. Uraren ziklo integrala

Iruñerriko Zerbitzuak, SAK edateko uraren, estolderia eta saneamenduaren eta hondakin uren arazketa zerbitzuak ematen ditu, guztiak ere Mankomunitatearen eskumenekoak. Prestazio hori Mankomunitateak 2007an onetsitako ordenantza batean daude araututa.

2013ko ekitaldirako onetsitako zerbitzu horien prezioak araututa daude ur-hornidurarako, estolderia eta saneamendurako, arazketarako eta uraren ziklo integrala dela-eta ematen diren gainerako zerbitzu eta jardueretarako prezioei buruzko ordenantzaren.

Ondoren erakusten dugu zerbitzua osatzen duten prestazioen kostua, bai eta 2013an haien finantzaketarako lortu ziren diru-sarrerak ere:

	Goi presioan ura hornitzea	Tokiko sareak	Guztira
Kostua, guztira	-11.924.058	-13.723.274	-25.647.332
Prezioen bidezko diru-sarrerak	9.020.855	16.158.259	25.179.114
Prezioek zenbateko estaldura (%)	% 76	% 118	% 98
Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak	2.569.397	1.383.317	3.952.714
Bestelako diru-sarrerak	113.969	678.277	792.246
Zerbitzuaren superabita	-219.837	4.496.579	4.276.770

Ikus daitekeen bezala, 2013ko ekitaldian ur-hornidurarako, estolderiarako, saneamendurako, arazketarako eta uraren ziklo integralarekin lotutako beste batzuetarako onetsitako prezioek emandako zerbitzuen guztizko kostuaren ehuneko 98 finantzatu dute. Zerbitzu horretan, 4.276.770 euroko superabita sortu da, inbertsioak finantzatzeko jaso diren kapitaleko diru-laguntzengatik diru-sarrerak direla eta. Kontabilitate-printzipioei jarraituz, ekitaldiaren emaitzara aldatu dira.

Hala eta guztiz ere, guztira sortu den superabita, 4.276.742 eurokoa, 324.028 euroraino jaitziko litzateke ez balitz kontuan hartuko ekitaldiari egotzitako kapitaleko diru-laguntzengatik diru-sarrera.

Bestalde, Sozietateak goi presioko saneamendurekin eta hondakin-uren arazketarekin lotutako zerbitzuak ematen ditu, eta NILSA sozietate publikotik diru-laguntza bat jasotzen du guztizko

kostuak finantzatzeko, zuzenak zein zeharkakoak. Zerbitzu horretan, 686.762 euroko defizita sortu da, hurrengo taulan erakusten dugun bezala:

Goi presioko saneamendua eta arazketa	
Kostua, guztira	-12.401.830
NILSAren diru-laguntza	7.100.426
Diru-laguntzaren estaldura (%)	% 57
Uraren salmenta	1.719.852
Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak	2.738.807
Bestelako diru-sarrerak	155.983
Zerbitzuaren defizita	-686.762

Uraren ziklo integraleko gainerako zerbitzuetan gertatzen den bezalaxe, ekitaldiko emaitzari egotzitako kapitaleko diru-laguntza kentzen da.

Inbertsioak finantzatzeko jasotako kapitaleko diru-laguntza ez-itzulgarriak hasiera batean ondare garbiaren multzoan kontabilizatzen dira, eta galeren eta irabazien kontuan diru-sarrera gisa aitortzen dira, aldiari zehar diru-laguntza horiek finantzatzeko aktiboek izan duten balio-galeraren proportzioan.

Ur-horniduraren zerbitzurako zerbitzu-gutunak, Mankomunitatearen webgunearen bitartez zabalitzen denak, bederatzi konpromiso jasotzen ditu, eta haiei buruzko jarraipen txostenak egin dira 2011ko eta 2012ko ekitaldietan.

V.3.6. Hiri-hondakinak bildu eta tratatzea

Iruñerriko Zerbitzuak, SAK Mankomunitatearen eskumenekoa den hiri-hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuen ematea kudeatzen du, toki entitateek edo Mankomunitateak titularitatea daukaneko jarduketara-esparruek ezarritako barrutietan.

Mankomunitatearen Batzar Orokorak 2007ko otsailean hiri-hondakinen kudeaketa arautzeko ordenantza onetsi zen.

Mankomunitateak honako bitartez dauka ezarrita hondakinen bilketarako zerbitzua: eduki-ontzi bereziak gai organikoetarako eta gainerakoetarako, ontzietarako, papererako nahiz kartoi-erako eta beirarako; eta lurpeko edukiontzia eta bilketa pneumatikorakoak.

Halaber, bilketa bereziak finkatzen ditu inausaldietarako eta lorezaintzarako, altzari eta etxeko gauzetarako, arraindegietarako, hondakin sanitarioetarako, hildako etxeko animalietarako eta obra-hondakinietarako, besteak beste.

2013ko ekitaldirako onetsitako tarifak hiri-hondakinen kudeaketa-zerbitzuen finantzaketa arautzen duen ordenantzan araututa daude. 2012ko abenduko NAO-n argitaratu zen ordenantza hori.

2013ko ekitaldirako onetsitako tasak ez dira nahikoak izan zerbitzuaren guztizko kostu garbia estaltzeko. Kostu hori zuzeneko eta zeharkako kostuek osatzen dute, horien barne direla gastu finantzarioak eta atxikitako aktiboen amortizazioak, eta ekitaldiaren emaitzari egotzitako kapitaleko-diru-laguntzak zein paper-salmentaren ondoriozko diru-sarrerak kenduta.

Hurrengo taulan, sortutako defizita erakusten dugu:

Hondakinen bilketa eta tratamendua	
Kostua, guztira	-31.606.199
Tasen bidezko diru-sarrerak	27.425.841
Tasen bidezko finantzaketa (%)	% 87
Paper eta kartoiaren salmenta	2.184.307
Ekitaldiari egotzitako diru-laguntzen bidezko diru-sarrerak	1.446.296
Bestelako diru-sarrerak	285.674
Zerbitzuaren defizita	-264.080

Hondakinen bilketa- eta tratamendu-zerbitzuaren guztizko kostuaren ehuneko 87 tasen bidez finantzatzen dira. Zerbitzu horrek 264.080 euroko defizita dauka 2013an.

Hiri-hondakinen bilketa-zerbitzuen gutunak zortzi konpromiso eta haiek neurtzeko adierazleak jasotzen ditu. Konpromiso horiek betetzeari buruzko azken jarraipen txostena 2011koa da, eta konpromiso bakoitzerako 2008tik 2011ra bitarteko betetze-maila erakusten du, bai neurketarako ezarritako adierazleen neurketaren bitartez, bai erabiltzaileei egindako asebetetzeari buruzko inkesten bitartez, adierazlerik ezarri ez den kasuetan.

V.3.7. Ibai parkea

Eskualdeko ibai parkea 22 kilometroko korridore berde bat da, Arga, Ultzama eta Elortz ibai bazterretatik doana. Mankomunitateak Iruñeko udalerrinari dagozkion parkeko 11 kilometroak kudeatzen ditu.

Parkea zuzkidura publiko bat da, aisiarako eta jostetako erabileretarakoa. Haren hirigintza-araudia eta erabilera ibai parkerako 1999an onetsitako udalez gaindiko plan sektorialean finkatu zen.

2000ko urtarrilean, Iruñerriko Ibai Parkearen partzuergoa eratu zen, honakoek osatuta: Foru Komunitateko Administrazioa; Esteribar, Uharte, Eguesibar, Ezkabarte, Atarrabia, Burlata, Barañain eta Zizur Nagusiko udalak, eta Nilsa sozietate publikoa. Haren helburua zen Arga ibaiaren eta haren ibaiadarren ingurunean proiektu bateratua lantzea, alderdi hidrauliko, hirigintzako eta ingurumenekoak antolatzeko, bai eta ibai parkea sustatu, mantendu eta garatzeko ekintzak egiteko ere, bereziki ingurumenarekin lotura dutenak.

2006an, uraren ziklo integralarekin hobeki ezkontzen zen ikuspegi bat emateko asmoz, Partzuergoak erabaki zuen Iruñerriko Mankomunitateari aldatzea ibai parkearen kudeaketa, bai eta partzuergoa bera desagitea ere.

2007ko urtarrilaren 1etik, Iruñerriko Mankomunitatea da parkea dinamizatzeaz eta zaintzeaz arduratzen dena, Iruñeari dagokion zatian izan ezik, eta Iruñerriko Zerbitzuak, SAK esleituta dauzka parkearen kudeaketarekin lotutako jarduketa administratiboak.

2013ko ekitaldian, Sozietatea arduratzen zen parkeko jarduketa administratiboen kudeaketaz, bai eta 2007an atxiki zitzaizkion ondasunen kudeaketaz ere.

2013. urtean, ibai parkearen erabilerak arautzen dituen ordenantza onetsi zen.

Gaur egun, 2014ko uztailetik, ibai-parkeari atxikitako ondasun guztiak Iruñerriko Zerbitzuak, SAri atxikita daude, eta berari dagokio parkearen kudeaketa integrala.

Parkearen zabalpen plan bat badago, 70 kilometro gehiago sartzea aurreikusten duena, gaur egun dauden 33 kilometroez gainera (22 Iruñerriko ibai parkeari dagozkio eta 11 Iruñeari).

Honako hauek dira ibai parkearen guztizko kostuak eta finantzaketa 2013an:

	Ibai parkea
Kanpoko zerbitzuak.	493.489
Uholdeek eragindako gastuak	166.333
Amortizaziorako zuzkidura	132.799
Kontzejuetarako ekarpena	7.998
Kostuak, guztira	800.619
Udalen ekarpena	324.109
Kudeaketaren bestelako diru-sarrerak	27.654
Ibilgetuaren etekina	84.228
Diru-laguntzen aldizkatzea	69.585
Diru-sarrerak, guztira	505.576
Ibai-parkearen defizita	295.043

Ibai parkeak, 2013an, 800.619 euroko kostua izan zuen guztira; horietatik, ehuneko 40 zortzi udalek finantzatu zuten. 295.043 euroko defizita izan zuen.

Sozietateak ez dizkio Mankomunitateari fakturatzeko esleitutako kudeaketarekin lotutako gastu guztiak, baizik eta udalen ekarpenekin estaltzen ez den zatia, behin Mankomunitatearen kargura diren kontzejuen gastuak kenduta.

Udalen ekarpenengatiko diru-sarrerak Mankomunitateak kontabilizatzen ditu, bai eta zazpi kontzejuri ordaindu beharreko gastuak ere, lursailak okupatzeagatik sortutako errenten kontzeptuan.

Udalen ekarpenak 2011n ezarri ziren: udal bakoitzeko 8.000 euro gehi eta populazioaren eta ibai-ertzen araberako osagai aldakor bat –ehuneko 70 eta ehuneko 30, hurrenez hurren–.

Ibai-parkearen zerbitzu-gutunak, Mankomunitatearen webgunean argitaratuak, bederatzi konpromiso jasotzen ditu. Haien gaineko jarraipena egiten da eta haien betetzea aztertzen da, neurketarako ezarritako adierazleetan eta asebetetzeari buruzko inkesten emaitzetan oinarrituta. Azkeneko jarraipen-txostena 2013-2014koa da.

Txosten hau, indarrean dagoen araudiak ezarritako izapideak bete ondoren, Asunción Olaechea Estanga auditore andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko abuztuaren 6an.

Jarduneko lehendakaria, Luis Ordoki Urdazi

1. ERANSKINA MANKOMUNITATEAREN ETA SOZIJETATEAREN KONTU BATERATUA

1. Balantzea 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n

AKTIBOA	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia	PASIBOA	2013ko ekitaldia	2012ko ekitaldia	2011ko ekitaldia
AKTOBO EZ-KORRONTEA				ONDARE GARBIA			
Ibilgetu ukiezina		4.541	29.591	Funts berekiak			
Emakidak	375	375		Kapitala			
Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak	957.568	1.069.187	557.345	Funts soziala	39.891.735	39.813.263	45.005.612
Aplikazio informatikoak	243.592	92.328	381.492	Erabilera orokorrerako ondarea	-8.720.676	-8.720.676	-8.720.676
Bidean diren aplikazio informatikoak				Erreserbak			
Ibilgetu materiala	42.463.882	42.412.604	42.876.680	Sozietate bateratuetako erreserba	28.958.399	23.744.565	17.459.908
Lursailak eta eraikinak	88.962.844	91.336.600	89.369.177	Ekitaldiko emaitza bateratua	3.213.242	5.206.375	-2.059.009
Instalazio teknikoak	844.321	6.324.956	5.521.024	Kapitaleko diru-laguntzak	70.236.409	75.918.718	70.557.211
Bidean den ibilgetua eta aurrerakinak				Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarriak	3.328.093	3.010.307	3.786.485
Ondasun higiezinak inbertsioak							
Lursailak	517.670	517.670	496.660	Ondare garbia, guztira	136.907.203	138.972.552	126.029.530
Epe luzeko finantza-inbertsioak							
Ondare-tresnak	24.040	24.040	24.040	PASIBO EZ KORRONTEA			
Langileen ordainsariak	2.901.927	2.988.978	185.572	Epe luzeko zuzkidurak			
Bestelako finantza-aktiboak	1.000.000			Bestelako zuzkidurak	25.280.419	25.204.805	24.494.465
Zerga geroratuaren bidezko aktiboak	118.983	112.472	115.316	Epe luzeko zorrak	3.133.916	3.377.291	3.614.732
Aktibo ez-korrontea, guztira	138.035.202	144.883.751	139.556.897	Kreditu-entitateekiko zorrak			
AKTIBO KORRONTEA				Pasiboak, geroratuak zerga dela-eta	222.923	758.506	262.903
Izakinak				Pasibo ez-korrontea, guztira	28.637.258	29.340.602	28.372.100
Ura eta beste izakin batzuk	61.308	40.690	49.985				
Bestelako aprobetxamenduak	1.161.815	1.103.714	1.092.325	PASIBO KORRONTEA			
Merkataritze-zordunak eta kobratzeko dauden beste kontu batzuk				Epe laburreko zorrak			
Saimenten eta zerbitzuen bidezko bezeroak	15.945.045	16.520.729	15.264.561	Kreditu-entitateekiko zorrak	243.376	237.440	207.762
Askotariko zordunak	132.757	36.903	151.210	Beste finantza-pasibo batzuk	3.106.067	3.909.498	7.647.400
Langileak	3.170	2.805	3.169	Merkataritze-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk			
Bestelako kredituak administrazio publikoekin	5.736.342	9.959.416	7.509.466	Hornitzaileak	1.314.629	2.374.574	1.638.091
Epe laburreko finantza-inbertsioak				Hartzekodunak	12.653.755	11.870.765	13.669.725
Bestelako finantza-aktiboak				Langileen lansariak, ordaintzeko daudenak	33.829	917.935	57.064
Epe laburreko ekintzak				Zerga korrontearen pasiboak	93.833	64.808	94.094
Eskudirua eta bestelako aktibo likidoak	842.191	1.084.253	917.098	Bestelako zorrak administrazio publikoekin	935.416	707.196	813.274
Aktibo korrontea, guztira	46.389.075	43.954.348	39.554.433	Bezeroen aurrerakinak	486.264	430.082	569.642
Aktibo korrontea, guztira	184.424.277	188.838.099	179.111.330	Epe laburreko ekintzak	12.647	12.647	12.647
Aktibo korrontea, guztira	184.424.277	188.838.099	179.111.330	Pasibo ez-korrontea, guztira	18.879.816	20.524.945	24.709.700
				Pasiboa, guztira	184.424.277	188.838.099	179.111.330

2. Galeren eta irabazien kontua

	2013ko ekital- dia	2012ko ekital- dia	2011ko ekital- dia
A) ERAGIKETA JARRAITUAK			
Negozio-zifraren zenbateko garbia			
Salmentak	31.238.113	30.847.694	30.763.953
Emandako zerbitzuak	27.680.493	26.974.895	26.406.051
Enpresak, bere aktiborako, egindako lanak	313.906	545.397	537.130
Hornidurak			
Ur kontsumoa	-1.360.651	-1.343.978	-1.425.393
Merkataritza-izakinen kontsumoa eta bestelako hornidurak	-3.594.172	-3.059.812	-2.871.503
Beste enpresa batzuek egindako lanak	-16.913.532	-17.717.618	-16.441.448
Ustiatzeengatikoko bestelako diru-sarrerak			
Diru-sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk	13.861.908	13.548.740	10.441.198
Ekitaldiko emaitzari gehitutako ustiatze diru-laguntzak	7.128.334	6.971.073	7.706.367
Aparteko diru-sarrerak	103.597	3.276.521	131
Langile-gastuak			
Soldatak, lansariak eta parekoak	-16.391.784	-16.272.759	-16.122.333
Gizarte-zamak	-5.019.900	-4.949.772	-4.773.478
Pentsio-funtsen zuzkidura	-165.695		-1.298.063
Ustiaketaren bestelako gastuak			
Kanpoko zerbitzuak.	-12.462.587	-12.000.841	-12.959.963
Tributuak	-197.511	-1.781	-1.460
Merkataritza eragiketetako galerak, narriadurak eta horniduretan izandako aldeak	-378.573	-73.376	-220.009
Beste gastu batzuk, kudeaketa arruntarenak	-13.770.471	-13.267.717	-13.668.743
Aparteko gastuak	-171.048	-1.163	-1.069.792
Ibilgetuaren amortizazioa	-15.051.711	-16.127.671	-16.058.478
Ekitaldiko emaitzara transferitutako kapital-subentzioak	8.120.825	8.628.367	8.982.226
Zenbait ekitalditan banatu beharreko diru-sarrerak	167.344	223.091	115.752
Ibilgetua besterentzetik heldu den narriadura eta emaitzak			
Besterentzeen emaitzak	-262.930	-324.453	31.970
Ustiapeneko emaitza	2.873.955	5.874.837	-1.925.889
Diru-sarrera finantzarioak			
Balore negoziagarrienak eta bestelako finantza-tresnenak			
Hirugarrenenak	1.510.701	1.057.882	1.332.634
Finantza-gastuak			
Hirugarrenetikiko zorrenak	-90.482	-171.278	-140.679
Hornidurak eguneratzearenak	-904.114	-1.369.024	-1.165.152
Kanbio-diferentziak.	-17	-32	
Emaitza finantzarioa	516.088	-482.452	26.802
Zerga aurreko emaitza	3.390.043	5.392.385	-1.899.087
Mozkinen gaineko zerga	-176.800	-186.010	-159.922
Eragiketa jarraituetatik eratorritako ekitaldi-emaitza	3.213.243	5.206.375	-2.059.009
Ekitaldiko emaitza	3.213.243	5.206.375	-2.059.009

2. ERANSKINA IRUÑERRIKO ZERBITZUAK, SAREN ORGANIGRAMA

